



Paleolitikoko margo gehien aurkitu dituzten Atxurra koban dabil Diego Garate arkeologo plentziarra. ▶22-23

Maddi Aalla Rotaetxe 19 urteko eskubaloi-atezain gorlitzarrak Munduko Txapelketa jokatu du uztaile hasieran, Errusian. ▶19



hiruka

Uribe Kostako astekaria



65. zenbakia

2016ko
ekainaren 23tik
uztailaren 6ra arte

Jazz doinutan, 40 urte

Uztailaren 1etik 5era hogeit hamar kontzertu eskainiko ditu Getxoko Nazioarteko Jazzaldiak, Algortan; sarrerak salgai daude. ▶11



© DEE DEE BRIDGEWATER



«%100 'made in Getxo' izatea gura dut»

Elain Aspra algortarrak pelikula bat grabatu du Algortan datorren udaberrian; 44 urteko gidoilari, ekoizle eta zuzendaria da Aspra (izen artistikoa da).

Azkenengo hamabi urteotan, Novel Films ekoiztetxean lanean jo eta su ibili da Aspra, gidoiak idazten eta film laburrak egiten; iaz hasi zen Algortako filmaren gidoia lantzen.

Bere lehenengo film luzea izango da. Hilabeteotan, pelikularen ekoizpenean murgilduta dago, lokalizazio, teknikari, aktore, musikari eta baimen bila. ▶16-17

Urdulizko ospitalea, zabalik

▶10



Berangoko Ideiak lehiaketa aurkeztu du Udalak; gazteei dei egin die herria aldatzeko proposamenak egiteko. ▶8

Plentziako Lanbro Beltza topaketak ekainaren 24an eta 25ean izango dira; nobela beltzaz berba egingo dute. ▶14

Sexu-askapenaren aldeko aldarria egingo dute ekainaren 28an, martitzena, 21:30etik aurrera, Sopelan. ▶10

Uztailaren 7an argitaratuko da hurrengo HIRUKA; opor aurreko azkena, eta berezi-berezia izango den zenbakia!

Ekonomia dinamizatzekeo

Uztailaren 14ra arte aukera dago udalerraren dinamizazio ekonomikorako diru-laguntzak eskatzeko; guztira, 220.000 euro.

Udalerraren ekonomia-dinamizaziorako diru-laguntzak eskatzeko epea zabaldu du Getxoko Udalak. Uztailaren 14ra arte egongo da laguntza horiek eskatzeko aukera, eta, guztira, 220.000 euroko aurrekontua aurreikusi du udal gobernua.

Diru-laguntzak pertsona fisiko zein juridikoei emango dizkiete, diruz lagunduko den jarduera Getxon egiten badute eta berori Getxoko jarduera ekonomikoaren onurarako bada. Hala, hurrengo lau jarduera hauek sustatuko dituzte: lehenengoa, «Getxoko merkatarien edo ostalarien el-

karteei, federazioei, eta merkatarien zein ostalarien elkarteak multzokatzeten Bizkaiko beste erakunde batzuei bideratutako dinamizazio ekonomikorako jarduerak»; bigarrena, «Udalak bultzatu gura dituen eremu estratergiako elkarre profesional eta enpresen elkartei bideratutako dinamizazio ekonomikorako jarduerak»; hirugarrena, «nortasun juridikorik ez duten elkartei bideratutako dinamizazio ekonomikorako jarduerak»; eta laugarrena, «nortasun juridikorik gabeko enpresa eta elkartei bideratutako jarduera turistiko erregularrak abian jartzeko».

Udaletxeko, Algortako eta Itzabalzeta/Romoko herritarren arretarako bulegoetan egin daitezke eskaerak, oinarrietan agertzen den nahitaezko dokumentazioa aurkezteagaz batera. ◀

harremanetarako: 944 660 140
getxolan@getxo.eus



Eskaerak Herritarren Arretarako Bulegoan egin beharko dituzte interesdunek.

GetxoKlab prestakuntza-programa martxan ipini dute

Getxolan Ekonomia Sustapenerako Zerbitzuak GetxoKlab prestakuntza-programa praktikoa ipini du martxan, udalerriko alor estratergiakoetan ekintzaileen jarduna sustatzeko (kultura- eta sormen-industria; kirol eta ongizatearen industria; eta kultura- eta wellness-turismoa). Horietan izena emateko epea uztailaren 5era arte egongo da zabalik. Helburua da aipatutako hiru alor estratergiakoetako batean jakin-mina daukatenei behar dituzten tresnak eskuragarri jartzea, proiektu ekintzaile bat gara dezaten. GetxoKlab programa urrian hasi, eta otsailera arte egongo da, Getxoko Elkartegian. Ekime-



Saioak Getxo Elkartegian izango dira.

nean hainbat motatako jarduera edo ekintzak egingo dira; astean hirutan, 10:00etatik 14:00etara. Derrigorrezkoa izango da guztietara joatea. ◀

info+: getxoan@getxo.eus
www.getxo.eus/getxolan

Ezohiko etxebizitzetan OHZ %50 igotzea gura du Getxoko EH Bilduk

Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren harira, ohikoak ez diren etxebizitzetara %50eko erretegia ezartzea eskatuko du hurrengo osoko bilkuran Getxoko EH Bilduk. Izan ere, «hemendik gutxira» onartu behar du Udalak zerga hori arautzeko araudi fiskala. Koalizioak gogoratu duenez, arau foralake zehazten du zein den ohikotzat jotzen ez den etxebizitza. Hala, «udal gobernuarekin sinatu genuen aurrekontu akordioaren arabera, abenduaren 31 baino lehenago osatuta egon behar du Etxe Hutsen Erroldak». Hor-taz, proposatu dutenez, zerrenda horretan jasotzen diren etxebizitzetara eza-ri beharko litzaieke igoera hori. ◀

Fadurara sartzeko behin-behineko pasabidea, zabalik

Algortako Fadura kiroldegia on-doko zubiaren ordez beste bat egiteko lanak hasi ditu daborduko URA Uraren Euskal Agentziak. Inguru horretan, Gobela ibaiaren gaitasun hidraulikoa hobetzeko beharrak egiten dabil. Zubiak tipologia berria izango du: metro bat garaiagoa izango da, eta tamaina handiagoa izango du, ibaiko ibilgua zabalagoa delako. Aldez aurretik, behin-behineko pasabidea ipini behar izan dute, oinezkoek bidea izateko, zubia ordezkatzeko lanak egin bitartean. Pasarela horregaz, kiroldegiko instalazioetara sarbidea erraztuko da, eta gaur egungo zubitik doazen zerbitzuak ere handik desbideratuko dira. ◀

ikasi eta bizi izandakoa ez duzu ahaztuko

UDAKO ESKAINTZA 2016 CURSOS DE VERANO

URIBE KOSTAKO AEK
UDAKO IKASTARO TRINKOAK
ETA BARNETEGIAK

Leioa 944646063 · lamia@aek.eus
Getxo 944304734 · lauaxeta@aek.eus
Plentzia 946773607 · jentilbaso@aek.eus
Gorliz 946773646 · jentilbaso@aek.eus

www.facebook.com/UnibeKostako-AEK
www.aek.eus/blogak/unibekosta/
www.aek.eus

GURE ETXEA
taberna

HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

BORDATUAK
EUSKAL JANTZIAK

AINGARA

Aurrezki kutxa, 18. 48930 ERROMO-Getxo
94 403 89 53 · www.bordadosaingara.com

OSABIDE Hartz-Klinika
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, beheko eskuina. ALGORTA · 94 430 76 96

prentsa · aldizkariak

ITXASGANE

Getxoko kirol portua · 94 491 53 21

Getxo

Abuztuko jaiei irudia jartzeko lehiaketak

Itzubaltzeta/Romoko eta Portu Zaharreko

jai-batzordeek diseinu eta kartel lehiaketak antolatu dituzte, hurrenez hurren.

Algortako San Ignazio jaien kartel-lehiaketaren berri eman ostean, Itzubaltzeta/Romo eta Portu Zaharreko jaien lehiaketak iragarriko ditugu oraingoan. Abuztuaren 2tik 7ra ospatuko dira aurten Itzubaltzeta/Romo eta Pinuetako jaiak. Horri begira, bertako jai-batzordeak lehiaketa bi antolatu ditu: musika-taldeen lehiaketa eta diseinu-lehiaketa. Azken horretan, festei irudia ipintzeko hiru elementu sarituko dituzte: jaietako kamiseten marrazkia, zapietan erreproduzitzeko logoa, eta 3.000 jai-liburuxken azalerako irudia. Proposamenak uztailaren 7ko 13:00ak arte bidali ahal izango dira. Lanak erromokojaiabatzordea@gmail.com posta helbidera bidal dai-



Itzubaltzetako ospakizunak abuztuaren 2tik 7ra izango dira; Portu Zaharrekoak, ordea, 11tik 14ra.


tezke, jai-batzordeak zehaztutako oinarrien arabera. Musika-lehiaketari dagokionez, kategoria bakarra izango da, eta CDak uztailaren 11ra arte aurkeztu ahal izango dira. Bestalde, abuztuaren 11tik 14ra bitarteko Por-

tu Zaharreko jaiei dagokienez, kartel-lehiaketa antolatu dute aurten ere. Proposamenak uztailaren 11ra arte aurkez daitezke, Villamonteko kultur etxean. Saria 350 eurokoa izango da. ◀

info+: www.hiruka.eus

Eguenean, San Juan suak argituko du Telletxe plaza

Eguenean, hilaren 23an, San Juan suak argituko du Algorta, 18:30etik aurrera. Auzoko hainbat eragileren artean egitarau oparoa prestatu dute egun horretarako: dantza-festa eta aurpegiak margotzeko tailerra, berbarako. Era berean, txokolatea eta munduko postreak dastatzeko aukera egongo da, eta Gorrondatxe abesbatzaren kantu herrikoiek eta Itxartu dantza-taldeko lagunak Konjurua eta Urdiaingo San Juan Kantaiak gozaraziko dituzte Algortako erdigunera bertaratuko direnak. Kantuakaz batera, sua isiotuko dute, eta haren inguruan dantzatuko dute jaiari amaiera eman eta udari ondoetorria egiteko. Halaber, antolatzaileek jakinarazi dutenez, baliteke beste-lako ezustekoren bat egotea. Ohi legez, San Juan suaren batzordeak antolatu du ospakizuna; batzorde hori osatzen dute honako talde hauek: Egizu elkar-tea, Bizarra Lepoan euskara-elkar-tea, Abian kultur elkar-tea, Gorrondatxe abesbatza, Itxartu dantza-taldea, Getxoko Etorrinen Plataforma eta Ongi etorri errefuxiatuak plataforma. ◀



LABetik atera berri

IRATXE AZKUE REINALES
LABeko Eskumaldeako idazkaria

Neskamea etxean, langile ikusezina!

Seme-alabak, gurasoak, aitona-amonak, anaia-arrebak, gaixoak... zaintzen dituzte, garbitzailer, hezitzaile, erizain, sukaldari, *kanguro* lanetan aritzen dira, gehienetan jardunaldi luze lehergarriak dituztela. Eta, zer lortzen dute trukean? Soldata miserableak, lan-kontraturik ez, sexu jazarpenera, tratu txarrak, jarrera arrazista eta klasistak, irainak... Hitz bitan esateko: etengabeko zapalkuntza. Prekariatatearen aurpegiarik bortitzena aurkitzen dugu inoren etxeko lanak egiten eta inoren senideak zaintzen dituzten pertsonen kolektiboan, ia denak emakumeak. Asko eta asko etorkinak. Ezkutuko ekonomia. Baina esplotazioak ez du neurriarik. Enplegu-agentzia ugari daude, baimenik gabekoak, bitartekari lana egiten dutenak eta egoeraz aprobetxatuz langileen soldataren zati on batekin gertzen direnak. Gure eskualdean ere badaude horrelakoak, adibidez, «AsistHogar» agentzia, Getxon. Etxe barruko eremu pribatua lan egiteak eragin zuzena du sektorea hain babesgabe egotearekin, baina ez Estatuak, ez gure eremuko administrazioak ez du beharrezko ardurarik hartzen. Kapitalismoari askoz errentagarriago irtetzen zaio gizartea mantentzeko ezinbesteko diren etxeko lanak eta zaintza lanak emakumeok egitea, etxe barruan, ikusezin den eremuan. Etxeko langileen erabateko esplotazioa ez da isolatutako errealitatea. Kapitalismoaren eta emakumeok sufritzen dugun zapalkuntzaren ondorioetariko bat da. Horregatik, emakume hauen borroka ezin da izan borroka isolatua, zapaldutako beste sektore guztiekin batera aurrera eraman beharreko borroka baizik. Sistema kapitalista patriarkal honek gero eta gehiago itotzen gaitu, eta denok batera egin behar diogu aurre. ◀

Getxo

«Nire produktuak guztiz ekologikoak dira»

Mari Luz Iñarra Palomino algortarra biologoa da. Mundu osoan garapenerako lankidetzan ibili izan da, ingurumenari lotuta. Hala ere, 2014an proiektu berri bati ekin zion: xaboi eta baltsamo ekologikoak eta beganoak egiten hasi zen.



Iñarraren produktuak bere webgunean ere eros daitezke: www.landalore.com

IKER RICON MORENO ▶

U rte luzez Nazioarteko lankidetzeta-proiektuetan behar egin ostean, Mari Luz Iñarra algortarrari proiektu berri bat egiteko grina sortu zitzaion 2010ean. Azkenik, 2014an, kosmetika ekologikoa egiteko enpresa sortu zuen: Landalore.

AEBetako Smithsonian Institut-eko Folklive Festivalak zure produktuak erakutsiko ditu euskal produktuen azoka ekologikoan...

Eurak ipini ziren nigaz harremanetan; antza, webgunean nire produktuak

ikusi, eta gustukoak izan zituzten. Niretzat, egindako lana errekonozitzea da hori. Izan ere, horrek bestelako merkatu batzuetara hedatzeko aukera eskaintzen dit. Halaber, produktu ugari erosi dizkidatenez, lortutako etekinakaz enpresan inbertitzeko aukera ematen dit.

Zelan egiten dituzu xaboiak eta baltsamoak?

Betidanik egin diren bezala egiten ditut, baina teknika modernoak ere erabili. Xaboa, azken finean, azido eta oinarri batez osatzen da. Hala, sosa edo potasa uretan nahastu, eta olioak gehitzen dizkiot. Horrela, xaboa eta

glizerina lortzen dut. Antzina baserrietan, animalien oligoakaz egiten ziren xaboiak, baina nik landare-olioak erabiltzen ditut. Baltsamoak ere, landare jatorria duten argizariakaz egiten ditut. Nire produktua guztiz ekologikoa eta beganoa da.

Zerk ezberdintzen ditu gainerako produktu komertzialetatik?

Ohiko kosmetikatik, kontu askok! Horietan produktu kimiko ugari erabiltzen dira; askotan alergiak eta beste hainbat arazo sor ditzakete. Etxean egindakoen artean ere, batzuetan esaten dute naturalak direla, baina egia ez dira ekologikoak... Nik gauza horiek guztiak zaintzen ditut; bizitzeko proiektua izatea gura dut, baita izaera soziala izatea ere.

Non eros daitezke zure produktuak?

Laborategia Algortan daukat, eta xaboiak eta baltsamoak Getxoko hainbat dendatan saltzen ditut, esaterako Musuz Musun eta Txalupan. Ile-apaindegi eta denda ekologiko batzuetan ere aurki daitezke, baita Interneten ere. Gainera, azoka ekologikoetara ere joaten naiz normalean.

Eta etorkizunari zer deritzozu?

Hasiera gogorra izaten dabil, gutxika bidea egiten noa, gauzak ondo egin gura dituzunean ez dagoelako lasterbiderik. Etorkizunean, egindako lana errekonozitzea eta denda propio bat izatea gura nuke; hori da helburua. ◀

Bizilagunak Mendira kultur arteko martxa: izen-ematea, zabalik

Uztailaren 10ean, domekan, Bizilagunak Mendira - Urkiolarako V. Kultur Arteko Martxa egingo dute. Horretan parte hartzeko, inskripzio-epea zabalik dago daborduko. Jardueraren helburua da udalerrian kultura-artekotasunerako, askotarikotasunerako eta interakziorako eremuak bilatzen dituzten getxoartzarren arteko guneak sortzea. Bertokoak eta atzerritarrak elkartuko dira ekimenean, bere mitoetatik eta kondairetatik eta beste kultura batzuetatik ere bidaia egingo dute txangoan. Antolakuntzak autobus-zerbitzua eskainiko du (55 leku), baina nor bere ibilgailuan ere joan ahal izango da. ◀

info+: 658 360 292 / ibilkibidaiak@gmail.com

Getxo Kirolak-en ikastaroak euskaraz egin ahal izango dira

Getxo Kirolak 2016-2017 ikasturtean eskainiko dituen helduentzako aurreikusitako 246 kirol ikastaroetatik, 50 euskaraz izango dira, Bizi modalitatearen barnean: yoga, tenisa, gimnasia, ur-jarduerak eta padela. Hala, saio horietan, euskara izango da hizkuntza nagusia; hala ere, azaldu dutenez, ez dituzte erdaldunak edo euskara-maila baxua dutenak baztertuko. EH Bilduk azaldu duenez, Bizi ereduaren ume eta gazteei zuzendutako kirol ikastaroetan ezarri zen, «hala, lehen aldiz egongo da aukera helduentzako ikastaroetan kirola euskaraz egiteko». ◀

Merenderoa eta solariuma

Uztailaren hasiera aldera, Fadura kiroldegiko igerilekuan merenderoa eta solariuma egokituko ditu Getxo Kirolak-ek. Guztira, 1.200 metro koadro izango ditu Bolue III. futbol-zelaian, URAREN obregandik galdutako berdegunea «berreskuratzeko». ◀

UDAKO IKASTAROAK

UZTAILA ETA IRAILA

MATRIKULA-EPEA:

Ekainaren 1etik 30era
Del 1 al 30 de Junio

Azterketa ofizialak prestatzeko, **5 ordu egunero!**

UDAN ERE EUSKARAZ!

6-16 URTE BITARTEKO GAZTEENTZAT
PARA ALUMNOS DE 6-16 AÑOS

MATRIKULA IREKIA!

Ordutegia

Uztailaren 1etik 27ra arte, 9:00etatik 12:00etara
Del 1 al 27 de Julio, de 9 a 12:00h.



BULEGO ORDUTEGIA:

09:30 - 13:30
15:00 - 17:00



Algortako etorbidea, 104
48991- Algorta (Getxo)

94 460 66 71
j.a.agirre@euskalnet.net
www.jagirre.net

Erandio

Goikouria epaituko dute Asuako txatartegiaren auzian

Joseba Goikouria Erandioko alkatea epaituko dute Bilbon, datorren azaroan. Izan ere, Bilboko 3. instrukzio-epaitegiko magistratua Goikouria ikertzen dabil, alkateak, eta Asier San Nicolas zein Itziar Coba Hirigintza zinegotzi ohiek ustezko ez-egitezko prebrikazioa egin zutelakoan; Asuako txatartegi bat hamabost bat urtean lizentzia barik funtzionamenduan ibiltzea ahalbidetu ei zuten horrela. Alkatearen defentsak helegitea ipini zuen, ikerketa bertan behera utzi eta epaiketa egin ez zedin, baina epaileak atzera bota du eskaera hori. Goikouriak uko egin dio adierazpenak egiteari. ◀

Udako solstizioaren sua berreskuratuko dute Altzagan

Auzoan aspalditik desagertuta zegoen San Juan bezperako suaren ohiturari berriz ekin gura diote Altzagako hainbat taldek, Olentzero berreskuratzeke egin zuten antolaketa kolektibo zein zabalaren eta elkarlanaren bidez. Urte luzez, umeentzako txokolate-jana bakarrik egon da, merkatariek antolatuta. Hein handi batean, auzotarren parte-hartzean datza ekimenaren arrakasta. Antolatzaileak horretaz jakitun direla, besteak beste, egunean euskal jantzi tradizionalak jantzita edo moztortuta joatea eskatu diete. Egunean, 18:30ean hasiko dira umeentzako tailerak Irailaren 23a plazan, udaletxe ondoan. Ordu pare baten ostean, bertatik irtengo da kalejira, batukadagaz, eta sorginakaz; eltze magikoa ere ez da faltako. Auzoari bira emanda, txokolatea banatuko dute Tartangako zelaietan, eta hantxe isiotuko dute sua, 22:00etan, udaberria atzean utzi, udari ondoetorria egin, eta kontu txarrak uxatzeko. ◀



Aurreko urteotan legez, aurtan ere Lisker erromeria-taldeak joko du Arriagan. © LISKER

Kukularra eta Arriaga, festaren erdiguneak

Kukularrako eta Arriagako jaiek helduko diote Erandioko festen maratoiari, datozen aste-akabuetan.

Kukularra auzoak barikuan isiotuko du ospakizunen hasierako su-ziria 19:00etan, eta ordubete beranduago, igel-toka txapelketa egingo dute. Egun berean, sardina-jana egingo dute, festei energiaz ekin ahal izateko.

Eta behin indarra hartuta, musika izango dute lagun. Zapatuan eta domekan, familia osorako jarduerak izango dira: paella-lehiaketa, umeentzako Moto GP lasterketa, umore-ikuskizuna, tortilla-lehiaketa, ludoteka, magia, Olgetan solas familientzako kirol-jolasak, eta askoz ekimen gehiago.

Erandioko Arriaga auzoko San Trifon jaiei dagokienez, ohi legez, txupinak eta pregoiak abiatuko dute festen lehen eguna, uztailaren 1ean. ◀

Kukularrako jaiak

Ekainak 24, barikua

19:00 Txupina.
20:00 Igel-toka lehiaketa eta sardina-jana.
23:00 Dj musika-saioa.

Ekainak 25, zapatua

11:00 Umeentzako parkea.
12:00 Paella lehiaketa.
17:00 Moto GP VII. Lasterketa (umeentzat).
22:30 Disko-festa eta dj Mario.

Ekainak 26, domeka

11:30 Ludoteka eta Udal Musika Banda.
13:00 Tortilla-lehiaketa.
16:30 Olgetan Solas sendientzako jolasak.
18:00 Txan magoa, eta azken traka.

Arriagako jaiak

Uztailak 1, barikua

17:30 Txupina, pregoia eta mus-txapelketa.
24:00 Erromeria Alaikigaz.

Uztailak 2, zapatua

11:00 Puxera-lehiaketa.
12:30 Igel-tokako txapelketa, eta dantzak.
24:00 Erromeria, Lisker taldeagaz.
01:00 Zezen mekanikoa.

Uztailak 3, domeka

12:00 Meza, aureskua eta mokadutxo.
12:00 Olgetan Solas, sendientzako jolasak.
13:00 Abeletxe mugikorra eta apar-jaia.
15:00 Herri-bazkaria: paella.
18:00 Los Cinco Bilbainos.

Altzagako ikasleek elkartasun-ekimena

egin dute: Lehen Hezkuntzako 3. mailako neska-mutulek ia 120 kilo sardina, latetan, oparitu dizkiote Bizkaiko Elikagaien Bankuari. Gaztetxoek ekarpena egitea erabaki zuten, bankua ezagutu ondoren. Ikastolan elkartasun-merkatua antolatu, eta 630,90 euro batu zituzten. Latak erosi zituzten diruagaz.



© ERANDIOKO ALTZAGA IKASTOLA

GetxoGas

GetxoGason
Euskararekin
bat!!

Getxo eta Berango artean
94 430 15 00

JUAN MARI
Harategia · Urdaitegia



Baserriko haragia, produktu
artisaua eta etxek etxeko zerbitzua

Las Mercedes, 31. 48930 AREETA
94 464 41 25

GARAIZAR
BARRIKUNTZAK
Eraikuntza zerbitzu integralak

Illeta, 1. 48991 ALGORTA
94 430 52 43 · 607 952 977
rgaraizar@gmail.com · www.garaizar.biz



portu
zaharra
bar

Portu Zaharra kalea 35
48991 Algorta-Gutxa
Tf. 94 464 29 23
portuzaharra@portuzaharra.com
www.portuzaharra.com



Egunkariak
prentsa eta aldizkariak

Algortako etorbidea, 78 ALGORTA · 94 491 27 34

Gura ixanex gero, etxera eroango dizugu egunkaria!

Leioa

Mari Pepa eta Arloteren txanda da

San Juan bezperan, hilak 23, botako dute jaiari hasiera emateko txupina; domekara arte egongo da zer ospatu.

Aurreko aste-akaburik herria jai-giroan murgilduta badago ere, eguen honetan, ekainak 23, emango diete hasiera sanjuanei. Azken urteotako ohiturari jarraituz, Mari Pepak eta Arlotek hartuko dute txupina botatzeko ardura. Aurten, Gujas Team kuadrillako Irune Zaballak eta Jagoba Aretxabaletak zabalduko dituzte jaiak; iazko festetan lagun-taldearen arteko lehiaketa irabazi zuen-eta Gujas Teamek. Txupinazoaren ostean, kuadrillek jaitzierari ekingo diote. Bestalde, Black Ocean Witness (Erandio) taldea



Gujas Team kuadrillako Irune Zaballa eta Jagoba Aretxabaleta dira aurtengo Mari Pepa eta Arlote.

izan da Leioako XVI. Pop-rock Lehiaketaren irabazle nagusia, eta Metal modalitateko garailea ere bai. Pop-rock kategoriako irabazlea Sonograma (Madril) taldea izan da, eta «Euskarazko abestirik onena» sari berezia

Lumi lapurtarrek lortu dute «Haritza» abestiagaz. «Leioako Udala» saria Jarrera taldeak irabazi du. Finalak joan den barikuan, ekainaren 17an, jokatu ziren, Sakoneta kiroldegian. Aterpe Gaztegunek antolatzen du sariketa. ◀

San Juan sua

Ekainak 23, eguena

Udaletxeko ingurua

22:00 San Juan gaueko ikuskizuna, Hortzmuga konpainiagaz, Boulevarden.

23:15 San Juan sua, udaletxean.

00:15 Txokolate-jana, J.R. Aketxe plazan.

00:30 Rock&Classics Proyect taldearen kontzertua, Boulevarden.

Txosnagunea

Maritxu Teilagorri Txosna Batzordeak eta Leioako Akelarrea elkarteak antolatuta:

22:30 Dantzaldia, Garilak 26 taldeagaz.

00:00 San Juan gaueko akelarrea

01:00 Dantzaldia, Garilak 26 taldeagaz.

Ekainaren 26ra arte egongo da zertaz gozatu San Juan jaietan. Egitarau osoa hemen aurkitu ahal izango duzu.



Gaztea nintzenezan narrazio-lehiaketaren

irabazleen izenak ezagutzera eman ditu Udalak. 18 urtera arteko kategorian, Etna Mirok (Lleida) eskuratu du lehenengo saria, *Muñeca de papel* lanagaz. 19 eta 30 urte artekoetan, Ander Urionabarrenetxea getxoztarrak irabazi du, *Temperas, Lego y algun Playmobil* idatziagaz. Ernesto Tubia (Lardero, Errioxa) nagusitu da 31 eta 55 urte artekoetan, *Huellas extranas* narrazioagaz. Azkenik, 56 urtetik gorakoetan, Antonio Mejias (Granada) izan da nagusi, *D. Roberno* lanagaz. Kategoría bakoitzean, bigarren saria ere eman dute.



Irabazleentako batzuk euren saria jasotzen. © LEIOAKO UDALA

Gurutzetako erietxean segitzea eskatu du Esnatu Leioak

Erandioko Udalak hartutako bideari jarraitzeko eskatu zion Ruben Belandia Esnatu Leioako bozeramaileak Mari Carmen Urbietari alkateari, maiatzaren 31ko udal batzarrean. Erandioztarrek Gurutzetako ospitalean segitu gura dute, Urdulizko erietxera joan behar izan barik. Esnatu Leioakoek ere uste dute hurbilago dagoela Barakaldoko erietxea.

Ostera, ez dirudi Leioako EAJ eta jeltxerak erandioztarrek iritzi berekoak direnik. Alkate leioztarrak Belandiarri erantzun zionez, Urdulizko ospitaleak emango duen zerbitzua «askoz hobea» izango da, «nahiz eta bertara heltzeko azpiegiturak lortzeko lanean jarraitu beharko dugun». ◀

Udatxiki aisialdi-egitasmoko eskaera denak onartu dituzte

Izena eman duten ume guztiek izango dute aukera Udatxiki aisialdi-egitasmotan parte hartzeko. Udalak jakinarazi duenez, eskaera denak onartu dituzte; horrenbestez, ez dute zozketarik egin beharko. Hala, informazioa emateko batzarrak ekainaren 27an eta 28an izango dira. Lehenengo egunean, Alzaga ikastolako jantokian, 18:30ean batuko dira, 2012 eta 2013 artean jaiotako umeen gura-

soakaz; 19:30ean, berriz, 2010ean eta 2011n jaiotako umeen aita-amakaz egingo dute batzarra. Bigarren egunean, ostera, 18:00etan, Artatza-Pinueta ikastetxeko liburutegian egingo dute bilkura; eta, egun berean, 18:30ean, Txomin Arestiko jantokian, Mendibileko ikastetxera joango diren batzarra egingo dute. Udatxiki Alzaga, Mendibile eta Artatza-Pinueta ikastetxeetan egiten dute. ◀

Kalitatezko irakaskuntza euskaraz

BETIKO
IKASTOLA

- 0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelesa 4 urtetik aurrera. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, askaria, zaintza.
- Eskolaz kanpoko jarduerak ugari.
- Ikastolen Elkarteak ikastola bakarra Leioan.

Artaza auzoa, 84. 48940 LEIOA
94 464 23 64/94 464 33 07
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

Sopela



Domekan aurkeztu zituzten San Pedro eta Karmeneko jaien egitarauak. © SOPELAKO JAI BATZORDEA

San Pedro jaiak ate joka dauzkagu

Kuadrillek Gernika plazatik udaletxera egingo duten jai-tzieragaz emango zaie hasiera martitzenean, ekainak 28, San Pedro jaietara; 19:00etan abiatuko dira lagun-taldeak, eta, helmugara ailegatuta, erakustaldia egingo du talde bakoitzak. Horren ostean, 21:00etan, pregoia irakurri eta txupina botako du Gure Esku Dago dinamikakoek, udaletxeko balkoitik. Ondoren, Jare musika-taldeak Sopelako jaien abestia kantatuko du. Ospakizunek uztailaren 3ra arte segituko dute.

Bost urte beteko dira kuadrillen arteko txapelketa martxan ipini zutenetik; Sopelako Jai Batzordeak adierazita koaren arabera, aurten adin guztietako 24 lagun-taldeak parte hartuko dute sariketan. Gaineratu dutenez, «inoiz baino zailagoa izango da makila irabaz-

tea; proben artean, sorpresak egongo dira». Umeei begirakoan artean, berriz, Txosnak *abordatzera!* jarduera (talotailerra, graffitiak, apainketa...) prestatu dute, goizetan txosnagunea umez betetzeko. Bestalde, gazteek gune berezia (*bike extreme, big baller* puzgarriak, futbolinak...) edukiko dute aurten Gernika plazan. Arlo gastronomikoan, Paella Txapelketa egingo du lehenengo urtez Marmiton Kolektiboak. Kontzertuei lotuta, azkenik, egunero, herriko zein eskualdeko musika-taldeen joko dute, beste talde entzutetsuak batera, San Pedro jaietan. ◀



San Pedro jaien egitarau osoa hemen aurkitu ahal izango duzu.

San Juan suak argituko ditu zerua eta lurra ekainaren 23an

Ekainaren 23koa urteko gaurik laburrena da askorentzat, eta sua izaten da, zalantza barik, protagonista San Juan gauean. Sopelan, sutzarrak isiotu eta horien inguruan dantzatzeaz gainera, hainbat jarduerak egongo da. Hala, 19:00etatik aurrera, *Letter* denentzako antzezlan izango da, Zipiriñe ikastetxean. 20:15ean, berriz, txokolate-jana banatuko dute,

udaletxeko plazan. Egitarauari jarraituz, 21:00etan, *Lenda* izenburuko kalejira egingo dute hankaluzeez eta izaki fantastikoez, pirotekniagaz lagunduta. Eguna biribiltzeko, usadio zaharri eutsiz, sua isiotuko dute 22:00etan, udaletxeko plazan. Sutzar horretan, «urteko gaitz guztiak erretzeko aukera izango dugu», arduradun sopoloztarrek adierazi dutenez. ◀



GOSARIAK, PINTXOAK, KORAK, MUSIKA ETA GIRO EDERRIA. SOPELA, Tipa kalea 1 (Udaletxe atzean)



BENTATXU KALEA 3
946 522 558

SORGINZULO
HERBORISTERIA

Naparroa 5, Urduliz - 94 612 55 62
herboristeria.sorginzulo@gmail.com

4BIDE PINTURAK

Loroño, 2 SOPELA - 94 676 29 92
4bidepinturak@gmail.com

meñakoz
Jaletxea

Tlf: 946572709
C/ Zubigane n°1 (Sopela)
www.restaurantemeñakoz.com

Especialistas en carne y pescado a la brasa.

La Kala
Sopela

IPINTXO GOXO GOXOAK!
IJAJETAN KONTZERTUAK!

Sartutza, 5 SOPELA
Tel: 944 048 108

Laiak

Bentatxu 2, SOPELA - 94 676 03 28

DIDAK HAMILTON
IDIOMAS

Dr. Landa, 6/Iberre 9 - 94 676 30 12
info@didakhilton.com

FOTOXABIER

Doctor Landa z/g - Sopela
94 676 03 09
Gozatu jaietan eta irri!

Cien Pies

Aklino Arriola, 7
946 760 894
cienpies@cienpies.info

café Laubide

Afariak ostegunetik igandera
Txibierroak - Olagarroa - Errazioak
Plater konbinatuak
Sandwich - Hanburgesak

94 676 00 57 - Laubide 5, Sopela

AB
ARRIETARA ASESORES

Aklino Arriola, 51 94 676 62 12

DyK
Danatarik

Enrique Urrutikoetxe 2 - 946 754 998

Oinutsik
Kontsulta podologikoa

Nahia Andrés Bilbao (Kol. Zb. 236)
Zubigane 4 - 94 404 74 20

TABERNA FRONTOIA

Sabino Arana 4, Sopela
BOKATAK 3,50€
Tortilla, frantsesa bonito, txorizo...
ondo pasa jaietan!

ander deuna
Ikastola

Hautzaindegitik batxilergora arteko eskaintza

Irunbat
galp energia

Loiola Ander Deuna, 74
48600 SOPELA
946 764 625
www.irunbat.net

MARTITZEN ETA ZAPATUETAN ESKAINTZA BEREZIA

MUGI
FISIOTERAPIA ZENTRUA

Partikularrak eta Aseguru-etxeak

Sabino Arana 30 atzean - 48600 Sopela
94 676 05 60 627 67 45 36

errisia
Kafetegia

C/ Elizalde Sopela Tlf: 94.404.88.48
ONDO PASA JAIETANI!



Maratila

ITZIAR
LARRAZABAL GARDEAZABAL
ELAko eskualde-arduraduna

Errefuxiatuei harrera egin nahi diegu

Errefuxiatuen krisi delako hau ez da krisi bat, eta ez dauka zerikusirik babes bila datozen pertsonekin.

Ez da errefuxiatuen krisi bat, ia inori ez baitzaio babesik ematen. Ez da krisia ere, egoera ez delako unean-unekoa, eta ez duelako eskasiarekin zerikusirik. Errefuxiatuen krisi delako hau Europaren hondoratze moral eta politikoa da, ez baita oinarritzko eginbehar bat betetzeko gauza: aldi baterako bada ere egoera larrian dagoenari abegi egitea.

Historian oso garai gutxitan pilatu da gaur bezala hainbeste gatazka, hedaturari eta etxetik kanporatu dituzten jende multzoei erreparatu gero.

Aspaldidanik salatu izan dugu Europa eraikitzerakoan modu akritikoan ontzat eman direla eskuinaren postulatu ekonomikoak. Solidaritatearen aurka austeritate politikak ondorio ugari izan ditu, besteak beste, arrazismoa eta xenofobia hauspotzea.

ELAk beste giza organizazioekin bat eginez gaitzetsi egin du desplazamenduak gure herrialdeetara iristea galarazteko Europar Batasunak eta Turkiak sinatu duten hitzarmena. Akordio hau inmorala da eta nazioarteko legedia urratzen du. Gainera, drama ez da mugak gaindituta bukatzen, estatuetak barne -mugak, bakarrik datozen adingabeak, sexu eta genero-bortizkeriak.

Horregatik Europar erakundeek exijitu behar diegu berma dezatela asilo-eskubidea, ireki ditzatela bide seguruak gatazketatik ihesi doan jendearentzat, immigrazio -politika komuna erabaki dadila, bere kide diren estatuak premia ditzala nazioarteko legedia errespetatzera eta mundu guztiko gatazka armatuen konponbidean inplika daitezela, eskua-hartze belikoak baztertuta.

Mezu bakarra hedatu nahi dugu: harrera egin nahi diegu. ◀

Lemoiz

Lurzoruaren Legera egokitzeko diru-laguntza jasoko du Udalak

Udalerriko hirigintza-plangintza Lurzoruaren Legeari egokitzeko diru-laguntza eman dio Foru Aldundiak Lemoizko Udalarri. Lemoizkoak legez, eginbehar horretarako laguntza jasoko dute Bizkaiko beste 10 udalerrik: Atxondo, Urduña, Ugao, Mallabia, Forua, Ubide, Mendexa, Zierbena, Morga eta Nabarnizek, hain zuzen ere. Denak dira 7.000 biztanletik beherako udalerriak, eta laguntza jasotzeko lehentasuna izan dute «plangintza prestatzeko prozesua hasita ez zutenek edo 2015ean abiatu zutenek». Aldundiak adierazi duenez, «laguntzaren zenbatekoak 30.000 eta 2.310,53 euro artekoak dira»; Lemoi-



zek 30.000 euro jasoko dituela baieztatu du Udalak. Daborduko, laguntza «emateko foru-agindua sinatuta» dago, Aldundiak jakinarazi duenez; horrenbestez, «laster jasoko» dituzte udalek dagozkien zenbatekoak. ◀

Berango



Gazteek irailaren 1a izango dute ideia-proposamenak aurkezteko azken eguna.

Berango aldatzeko ideia bila dabil Udala

Berangoko Ideiak – Berango aldatu zure ideien bitartez ideia-lehiaketa abiatu du Udalak. Gazteei begirako ekimena da, aurten martxan ipinitako Berango Hiri Gaztea proiektuaren barrukoa. Batez ere 16 eta 35 urte arteko berangoztarrei zuzendutako lehiaketa bada ere, «Berangokoak ez direnek ere parte har dezakete, Berangon erroldatuta dauden gazteekin batera» aurkezten badira. Banaka zein taldeka (gehinez 4 lagun) aurkez daitezke ideiak, eta gai hauen inguruak izan daitezke proposamenak: gizartea, ingurumena, euskara, arteak, sarekoa, antolakuntza, kultura-artekoa, kirola... Udal arduradunek azaldu dutenez, ekimenaren helburuak ondokoak dira: Berangoko kultura ekintzailea sustatzea, eta horrela, gizarte berrikuntza- eta

garapen-proiektuen sorrera sustatzea; Berangoko gazteen artean ekimenak sortzeko eta garatzeko jarrera eta euren parte-hartze aktiboa sustatzea; auto-okupazioa, kultura ekintzailea eta ekintza-proiektuen eta enpresen sorrerarekiko interesa sortzea, besteak beste. «Berangon bideragarria eta aplikagarria den proiektu bat» izatea eskatu dute, eta formatu ezberdinetan aurkeztu ahal izango da: testua, ikus-entzuzkoa, zein formatu digitala. Lanak ekainaren 27tik irailaren 1era bitartean bidali beharko dituzte parte-hartzaileek, e-mailez. Sarietarako, 500 euro eta formakuntza-ikastaroetan parte hartzeko aukera emango dute, besteak beste. ◀

lanak aurkezteko: mesajovenberango@gmail.com
info+: www.berango.net

Barrika

San Juan jaien bigarren txanpari eusteko, gogotsu!

Barrizkotarrek disko-festagaz (18:00) abiatuko dute eguna; tai ji erakustaldiaren ostean, silexagaz sua egiten ikasi ahal izango da udaletxeko plazara hurbilduz gero, eta Cirkifoc taldearen ikuskizunagaz agurtuko dute gaua, sua isiotzeagaz batera. Barikuan, Barrikako eta Sopelako abesbatzen kantaldiak, herriko dantza-taldearen erakustaldia eta herri-bazkaria izango dira, besteak beste. Zapatuan egingo da urteroko Margolari Gazteen Kanpo Lehiaketa, 0-12 urte arteko begirakoa, (12:00-14:00); domekan, orga-joko txapelketa eta bits-jaiaren ondoren, sari-banaketakaz amaituko dira jaiak. ◀

egitarau osoa: hiruka.eus/barrika/

Udal musika-eskolan izena emateko epea zabalik dago

Uztailaren 29ra arte egongo da aukera Udal Musika Eskolan izena emateko. 2016-2017 ikasturtean, musika-irakaskuntza ez-arautuan ikastaroren bat jaso gura duenak udaletxean aurkeztu beharko du eskabidea edo izen-ematearen orria. Udalekoek iragarri dutenez, aurreikusitako leku-kopurua beteko balitz, zozketa bitartez banatuko lituzkete lekuak. Berangoztarrentzat (udalerrian erroldatuta badaude), ikasturtearen prezioa honako hau da: musika-hizkuntza ikasi gura dutenek hilean 30 euro ordainduko beharko dituzte; pianoa jotzen ikasi nahi dutenek, hilean 26 euro; eta abesbatzan kantatzen ikasteko, hilean 14 euro. Berango Antzokian (Abarotxu bidea 17) bertan dauka egoitza musika-eskolak; informazio gehiago lor daiteke bertaratu gero, edo udaletxean bertan. ◀

info+: 946 680 008

San Juan bezperako suaren inguruan, hainbat ekitaldi

Udaburuari ondo-etorria egingo diote berangoztarrek ere hilaren 23an. Aurten ur-txirrista erraldoi batean zein apar artean jolasteko aukera egongo da; horregaz hasiko da bezpera 17:30ean, Lantzarten. Txokolatea banatuko dute Rock Legendsen doinuakaz dantzatzeko duten bitartean; eta 20:00etan isiotuko dute sua, DJ Xaiborregaz dantzan segitzeko gero. ◀

Plentzia

Antzerki, argazkilaritza eta zirku tailerrak

Datorren ikasturterako ikastaroetan izena emateko epea zabaldu dute. Interesdunek Goñi Portalera jo dezakete.

Ikasturteari amaiera eman eta udako planak antolatzeari ekiteko ordua heldu da. Hala ere, oporraldiari hasiera eman baino lehen, datorren ikasturteko ikastaroetan izena eman beharra dago; Plentziako Udalak 2016-2017 ikasturteko tailerren izena emateko epea zabaldu du-eta. Hala, interesa dutenek Alex Igartuaren Antzerki ikastaroan izena eman dezakete daborduko. Eskolak urrian hasiko dira, eta 6 urte-tik gorako umeei, gazte eta helduei zuzenduta egongo dira. Txikienez eguenetan izango dituzte klaseak, 17:30etik 18:30era; gazteek, eguaztetenetan, 19:30etik 21:30era, eta helduek, azkenik, 19:30etik 21:30era. Antzerkiak gainera, argazkigintzan trebatzeko ikastaroa ere egongo da datorren ikas-



Izen-emateak zabalik daude daborduko.

turtean, urrian eta azaroan. Eskolak astelehenetan eta eguaztetenetan izango dira, 19:00etatik 21:00etara. Interesa dutenek daborduko izena eman dezakete, irailaren 16ra arte. Bestalde, Izaskun Rueda zirku-adituak 2004 eta 2009 artean jaiotako haurrentza-

ko zirku-tailerra eskainiko du, euskaraz, Plentziako eskolan. Eskolak barikuetan izango dira, arrastiz, 16:45etik 17:45era eta 17:45etik 19:45era, adinaren arabera. Izen-ematea leku-kopurua bete arte egongo da zabalik. ◀

izen-ematea: kultura@plentzia.eus / 946 775 541

Literatur sariketa ugari egin dituzte Plentziako institutuan

Aurten ere, ArgIHizkiak lehiaketan parte hartzeaz gainera, txapelketa paraleloa egin dute Plentziako Uribe Kosta institutuko ikasleek; Elkar eta Booktrailerren lehiaketetan ere gauza bera egin dute. Azaldu dutenez, parte-hartzea handia izan da, DBH eta batxilergoko ikasleen artean, «espero genduana baino askoz handiagoa». ArgIHizkiak irabazleak izan dira: Ibone Etxebarria idazki laburrean, Patricia Salin labur-laburrean, eta Eritz Monasterio, DBHkoen artean. Elkar lehiaketa paraleloaren irabazleak, honakoak: Gurutze Legina eta Nora Lejarza ipuinean, eta Eider Urrutia eta Izei Pascual, komikienean.



Institutuko ArgIHizkiak irabazleak bat.

Booktrailerrenean, Malen Gomez, Mainer Solaguren, Jone Urriaga eta Marta Undak irabazi dute. Sariketarik ikastetxeko ikasleen eta irakasleen normalizazio-batzordeek antolatu dituzte. ◀

Udalak eremu elektromagnetikoen eragina aztertuko du

Plentziako Udalak Europako Kontseiluko 1815 Ebazpenagaz bat egin du, eremu elektromagnetikoen balizko arriskuen eta horiek ingurumenean duten eraginaren harira. Hala adostu zuten azkenengo osoko bilkuran, EH Bilduk aurkeztutako proposamenari jarraituz. Kontuak horrela, mota horretako uhinak eragiten dituzten instalazioen inpaktua ikertuko dute: etxebizitza ugariaren eta umeentzako parke baten ondoan dagoen Andra Mari kaleko antena, besteak beste. Horrez gainera, osoko bilkuran zehaztu zuten, beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte eremu elektromagnetikoen esposizioa murrizteko. ◀

Gorliz

San Pedro Eguna ospatuko dute, hilaren 29an

San Pedro plazak hartuko ditu santuaren egunean haren omenezko ospakizunak, hilaren 29an, eguaztetenetan. Horretarako, egitarau oparoa antolatu dute, auzotarren eta bertaraten diren guztien gozamenerako. Hala, arrastiko 19:00etatik aurrera, Gorlizko Aratz dantza-taldeak dantzaldia eskainiko du. Ondoren, bertaratutako gizon-emakumeek areto-dantzak zein ondo egiten duten erakusteko aukera izango dute. Bien bitartean, gose direnek sardinak jateko parada edukiko dute, gero indarberrituta, berbenan dantza egin ahal izateko. Horrez gainera, neska-mutil gazteek zezensuzkoaren aurretik, edo atzetik, korrika egiteko aukera izango dute, 22:30etik aurrera. Hala, arrasti osoan herri-giroaz gozatzeko egundoko aukera izango da ekainaren 29koa, 19:00etatik 23:45ak bitartean. ◀

info +: www.gorliz.eu

Folklore Eguna antolatu dute ekainaren 24rako



San Juan suaren inguruan zein gaitetik dantza eta salto egin ostean, eta oraindino gau magikoari kea dariola, folkloreaz gozatzeko aukera egongo da Gorlizen. Izan ere, hilaren 24an, barikuan, Folklore Eguna antolatu dute. Hala, herriko Aratz dantza-taldeak erakustaldia eskainiko du Ibarreta plazan. Ondoren, Gorlizko Musikabi ahots zurien korallak musika-doinuak jarriko ditu, bertaratutako herritar guztien gozamenerako. Emanaldia iluntzeko 22:00etan hasiko dela jakinarazi dute Gorlizko Folklore Eguren antolatzaileek. ◀



AIXERROTA BHI IKASTETXEA

Batxilergoak: • Teknologikoa • Natur eta Osasun Zientziak • Giza eta Gizarte Zientziak
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) B eta D ereduak
Zereginak ikasteko gela (A eta D ereduak)

Informazio gehiago: www.aixerrotabhi.net • 94 491 17 86

GOIZEAN

«Gozoki eta prentsa, gubi denik ez prentsa»

Prentsa · Fruitu lehorrak
Aidizkariak · Libxerriak

Orduña mendatea, 1. GETXO · 94 430 22 13



Lumak astindu

**KOLDO
TELLITU MEJIA**
Ikastolen elkarteko
lehendakaria

Euskararen ebaluazioa hezkuntzan

OMCE legearen onarpenaz geroztik kanpo ebaluaziorik orokorrean ospe eta sona galdu dute gure gizartean, lege horretan biltzen den ebaluazio eredua ikusita kontu logikoa agian. Ikastolok ere argi dugu bere balioa limitatua dela eta ez duela ikasleen ikas-irakas prozesua bere osotasunean ebaluatzen.

Modu berean kanpo ebaluazioak norabidea ziurtatzeko onuragarriak dira, barruko ebaluazioaren osagarri, eta horrez gain hezkuntza sistemaren erradiografia ere eman diezagukete.

Aurten ISEI/IVEIk ebaluazio txostena aurkeztu duenean eta berriro ere begi bistan geratu denean hizkuntza ereduen diseinuak ez duela balio ikasleek euskaraz behar adinako hizkuntza-gaitasun maila lor dezaten, pozik konprobatu ahal izan dugu hezkuntza sistemaren erradiografia funtzioa orain arte eszeptiko zeuden batek baino gehiagok aitortu diola kanpo ebaluazioari eta hortik harago hizkuntza ereduen sistema bertan behera utzi eta murgiltze ereduen inplementazioa eskatzeko oinarri ere izan da. Ados gaude azken ideia horrekin, baina ikasleen euskarazko hizkuntza gaitasunen ebaluazioak, Kontseiluak adierazi zuen modura, ezinbestekoa izateaz gainera, hezitzaile eta jarraitua izan behar du, sistema hobetzeko tresna izatea helburu hartuta.

Murgiltze ereduen eskutik Ikasle euskaldun eleaniztunak lortzen ari garen baieztatzeko ezinbesteko adierazlea izango da ebaluazioa, emaitzak publiko eginez. Ebaluazioak esango digu murgiltze ereduak ipinitako helburuei erantzuten dien, ezin dugu berriro hutsegini, eta hutsegiteak agertu ezkerera garaiz eza gutu behar dira zuzentzeko. Lan hau Fundazio baten eskuetan egon beharko litzateke gainera, ez administrazioaren eskuetan. ◀

Urduliz

Protesta artean, zabalik

Ekainaren 14an zabaltzea aurreikusita zegoen arren, hilaren zora arte atzeratu zuten Urdulizko ospitalearen alde baten irekiera. Eguen eta barikurako protestak deitu dituzte.

Urdulizko ospitalea protesta sindikalen artean hasi da lanean. Joan den astelehenan, hilaren 20an, hasi zuen zerbitzua ospitaleak, zati batek, behintzat. Oraindino hauek bakarrik eskainiko ditu: kanpo-kontsultak, proba funtzionalak, irudi bidezko diagnostiak eta prebentziozko medikuntza. Jon Darpon Osasun sailburuak iragarri du ospitalea 2017ko hasieran egongo dela «funtzionamendu osoan». Sindikatuek salatu egin dituzte ospitaleak hartuko dituen zerbitzuen pribatizazioak, berbarako: garbiketa, sukaldia eta mantentzea. Hori dela-eta, ordu biko lanuztea egin zuten hilaren 14an, Bizkaiko Osakidetzaren zentroetan. Eguen eta bariku honetarako ere, hilak 23 eta 24, hainbat protesta iragarri dituzte. ◀



Ekainaren 15ean ere mobilizatu ziren sindikatuak eta Urduliz Ospitalea Plataforma.

Uribe Kosta

Sua gurtuz, udari ondoetorria egingo diote uribekostarrek

Ohi legez, San Juan bezperako gauean isiotuko dituzte suak Uribe Kostako herri denetan. San Juan suak antzina du jatorria: jaia egiten zen udako solstizioa ospatzeko, eta gerora hasi zen ospatzen ekainaren 24an. Izan ere, udako benetako solstizioa, urte osoko egunik luzeena, ekainaren 21a edo 22a izaten da. Barrika eta Leioan San Juan festa handietan murgilduko dira egunotan; halere, eskualdeko gainerako leku askotan ere, «txarrak erretzeko eta onak eskatzeko» tarte egongo da gau horretan, suaren inguruan dantzan, desirak opa eta gordetzeko, atzean utzi gura direnak sugarren artean galtzeko... ◀

Ekainak 23, suak

Barrika

22:30 San Juan suaren ikuskizuna, Cirkifoc taldeagaz, Udaletxeko plazan.

Gorliz

21:00 Sua, txalaparta eta trikitia, Andramariazpin.

21:00 Sua, txalaparta eta trikitia, Errementari bidean.

Lemoiz

22:00 Sua, alboka, txalaparta, edariak, txistor-jana eta txokolatada, Armintzan.

Plentzia

20:30 Sutarainoko igoera, itsasadarretik.

21:00 Suari ondoetorria, eta Pozoi Magikoaren dantza, Legarrondon.

Euskara ikasteko bonu-laguntzak banatuko dituzte

Aldundiak «Euskara Eskura Txar-Atela» programa ipini du martxan, HABE eta Bizkaiko euskaltegiakaz batera. Horren helburua da euskararen irakaskuntza sustatzea euskaltegietan eta autoikaskuntzarako zentro homologatuetan. Horretarako, deskontua egiteko bonu bat erabili ahal izango da 2016-2017 ikasturtean. Bizkaian erroldatuta dauden pertsona guztiek dute aukera programa horren deskontu-bonua erabiltzeko. Horretarako, 2015-2016 ikasturtearen lehenengo deialdian, euskararen A1, A2 edo B1 mailak gainditu behar izan dituzte programari atxikitako zentroren batean. ◀

info+: www.bizkaia.eus/euskaratxartela

Barrikako eta Getxoko udalak Elebiden salatu dituzte

Elebidek, Hizkuntza Eskabideak Bermatzeko Zerbitzuak, 789 intzidentzia erregistratu zituen iaz. Hala, aurreko urte gehienetan bezala, gora egin du intzidentzia-kopuruak. Salaketa horietatik guztietatik, Getxoko Udalak hiru kexa jaso ditu, eta Barrikako Udalak, bat. Txostenak zehazten duenez, Barrikako hondartzako aparkalekuko seinale bat gaztelania hutsean

egotea salatu zuten. Getxon, berriz, Areetako Andres Isasi Musika Eskolako ikuskizun bat, euskaraz izango zela iragarri zuten arren, %90 gaztelaniaz izan zela kexatu ziren. Halaber, Udalaren iragarki bi gaztelaniaz argitaratu zirela eta Areetako osasun-zentroan herritarrei zuzendurik kartel ugari gaztelania hutsean zegoela salatu zuten. ◀

info+: www.euskara.euskadi.net

Sexu-askapenerako aldarria egingo dute hilaren 28an, Sopelan

Stonewall-en 1968an izandako martxaren urtemugan, sexu-askapeneraren aldeko nazioarteko eguna aldarrikatu eta azken boladako erasoak salatuko dituzte hilaren 28an, martitzenan, Uribe Kostan. 21:30ean ipini dute hitzordua, Sopelako elizan. Kitzikano sexu-askapenerako elkarteak egin du deialdia, «Erraietara buelta. Haus-tura ala ezer ez», goiburuagaz. ◀



Poloniako Maciek Wojcieszuk Quintet taldeak irabazi zuen iazko talde-lehiaketa. © GETXOKO KULTUR ETXEA

Getxo Jazzek, 40 urte

Uztailaren 1etik 5era, 20 kontzertu eskainiz ospatuko du 40. urteurrena Getxoko Nazioarteko Jazzaldiak; aurten, familia osoarentzako saioak egongo dira, aste-akabuan.

Getxoko Nazioarteko Jazzaldiaren 40. edizioa izango da uztailaren 1etik 5era; ohi den legez, jaialdiak izen handiko musikariak batuko ditu Algortan. Saio nagusiei dagokienez, Jorge Pardo flautistak eta saxofonistak emango dio hasiera jazzaldiari Huellas bere laukoteagaz. Getxoko Kultur Etxeak azaldu duenez, Pardo musika-mestizaje onenaren eredia da, eta flamenko-jazz proposamen dotorea eskainiko du. Hurrengo egunean, hilak 2, Uri Caine joko du; musikaren agerlekuetako pianistak garrantzitsuenetakoa da bera eta berritzaile nekatu ezina. Algortara bere hirukoteagaz helduko da, talde-osaera ezagun eta adierazgarriena. Jaialdiaren erdialdean, Hermeto Pascoali helduko zaio txanda; musika tradizional brasildarraren eta jazzaren zein beste soinu batzuen arteko

fusioaren egile nagusietakoa da. Astelehenean, hilak 4, Getxo Jazzek, bigarren bere historian, Dee Dee Bridgewater aurkeztuko du, estandarren errepertorioa bikaintasun osoz lantzen duen nazioarteko erreferentziako ahotsa baita, eta, hala ere, beti inprobisazioaren alde egiten du ausardia handiz. Azkenengo egunean, uztailak 5, Esperanza Spalding kontrabaxistak kantatuko du, gaur egungo eszenan etorkizunik oparoenetakoa duen artis-

Aurreko urtetan legez, gauerdian, jam session-ak egongo dira The Piper's taberna irlandarrean

ta da. Spaldingek *Emily's D+Evolution* ikuskizun berritzailea aurkeztuko du Algortan, jazz bideoagaz eta antzezpenagaz nahastuta.

Bestelako saioak

Horiei guztiei gehitu behar zaizkie, gainera, Taldeen Lehiaketako finalera heldu diren lau bandak –beste behin ere, Europako jazz gaztearen lanaz gozatzeko aukera izango da–, eta Hi-

rugarren Milurtekoa ataleko kontzertuak. Milurtekoan, proiektu gazteek (Laurent Coulondre Trio eta Ainara Ortega *Scat*) artista beteranoak (Kiko Berenguer eta Gonzalo del Val) partekatuko dute kartela. Atal horretan ere, bertoko Andres Isasi musika-eskolan sortutako *jazz ensemble*-a egongo da.

Horrez gainera, In Sesion taldeak joko du, hiru egunean (hilaren 1etik 3ra, gauerdian) The Piper's Irish Pub tabernako *jam session*-etan. Bestalde, hilaren 2an eta 3an, familia osoarentzako saioez gozatzeko aukera egongo da, Play'N'Kids eta Pixie Rue del Percebe taldeakaz; kontzertuak 13:00etan izango dira, Telletxe plazan. Azkenik, Torrene aretoan, Javier de la Torreren *Jazz? Yes!* mosaikoen erakusketa egongo da ikusgai.

Sarrerak

Jorge Pardo Huellas Cuarteto taldearen saiorako sarrerak 10 euroan egongo dira salgai, ohiko lekuetan; Uri Cane Trio entzutekoak, 12 euroan; Hermeto Pascual eta bere taldeaz gozatze-koak, 15 euroan; Dee Dee Bridgewater kontzerturakoak, 25 euroan, eta azkenik, Esperanza Spalding saiorakoak, 20 euroan. Denetarako bonua 65 euroan egongo da. ◀

Egitaraua

Uztailak 1, barikua

19:00 Andres Isasi Musika Eskola Jazz Ensemble, Telletxe plazan. Sarrera, doan.

21:00 Wilfried Wilde Quintet (talde-lehiaketa) eta Jorge Pardo Huellas Quarteto, Bihotz Alai plazan. Sarrera: 10 euro.

Uztailak 2, zapatua

13:00 Play'N'Kids (familia osoarentzat), Telletxe plazan. Sarrera, doan.

19:00 Kiko Berenguer Quartet, Telletxe plazan. Sarrera, doan.

21:00 Tomasz Wendt Trio (talde-lehiaketa) eta Uri Caine Trio, Bihotz Alai plazan. Sarrera: 12 euro.

Uztailak 3, domeka

13:00 Pixie Rue del Percebe (familia osoarentzat), Telletxe plazan. Doan.

19:00 Laurent Coulondre Trio, Telletxe plazan. Sarrera, doan.

21:00 Francesco Colombo Trio (talde-lehiaketa) eta Hermeto Pascoal & Grupo, Bihotz Alai plazan. Sarrera: 15 euro.

Uztailak 4, astelehena

19:00 Ainara Ortega *Scat*, Telletxen. Doan.

21:00 Daadoud Salim Quintet (talde-lehiaketa) eta Dee Dee Bridgewater Quintet, Bihotz Alai. Sarrera: 25 euro.

Uztailak 5, martitzena

19:00 Gonzalo del Val Trio, Telletxen. Doan.

21:00 Talde-lehiaketaren irabazlea eta Esperanza Spalding, Bihotz Alai plazan. Sarrera: 20 euro.

hirukagenda


Uribe Kostako asfekaria

2016ko ekainaren 23tik ekainaren 29ra arte



hiruka.eus

Biotz Alai abesbatzagaz kontzertu bat baino gehiago eman du Anne Etchevoyen abeslariak. ©SERRANO PRODUKZIOAK



GETXO

Etchevoyen eta Biotz Alai elkarregaz, Algortan

Zapatu honetan, ekainak 25, Biotz Alai abesbatzagaz batera emango du kontzertua Anne Etchevoyen abeslari baxenafarrak; abestalde algortarrari gorazarre egiteko asmoz, Bihotz Alai izena jarri zioten plazan izango da saioa, 20:00etatik aurrera. Sarrerak 10 euroan salgai daude.

Anne Etchevoyenen ahots gozo eta ahaltsuak Frantzia konkistatu

du. Donapaleun jaio zen abeslaria, eta Baztango Erratzu herrian ere badauzka sustraiak. Arrakasta handia eduki du *Les Voix Basques* diskoagaz; lan horretan, euskal folkloreko kanta tradizionalak eta berak konposatutakoak nahasten ditu Etchevoyenek. Euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez kantatzen du. Lana Urrezko Disko bihurtu da Frantzian, eta *Hegoak*

bideoklipak, Mikel Laboaren *Txoria Txori* kantaren moldaketak, oihartzun handia lortu du sarean.

Oraingoan, Juanlu Diaz-Emparantzak zuzendutako Biotz Alai abesbatzagaz kantatuko du. Talde algortarra 1923an sortu zen, San Nikolas parrokiako abesbatza izateko; euskal kanta zaharrek eta gaur egunekoek osatzen dute bere errepertorioa. ◀

Ekainak 23

San Juan sua

Herri guztietako egitarauak ikusteko, egiozu argazkia honi:



2016/06/23 - 22:00

Silexegaz sua egiten ikasteko erakustaldia

Udaletxeko plaza | Barrika
San Juan jaietan. Iñaki Libanogaz.

2016/06/23 - 22:00

Ikuskizuna, Hortzmugagaz Boulevard | Leioa

San Juan gaueko ikuskizuna eskainiko dute.

2016/06/23 - 22:30

Cirkifoc talde katalanaren su-ikuskizuna

Udaletxeko plaza | Barrika
San Juan jaietan.

2016/06/23 - 22:30

Dantzaldia, Garilak 26 musika-taldeagaz

Txosna-gunea | Leioa
San Juan jaietan. Maritxu Tellagorri Txosna Batzordeak antolatuta. Gauerdian atsedemaldia egingo dute; akelarrearen ostean jarraituko dute jotzen.

2016/06/23 - 00:30

Rock&Classics Proyect taldea

Bulevard | Leioa
San Juan jaietan.

2016/06/24 - 19:00

Hiru ipuin ikuskizuna

Euskal Etxeen plaza | Leioa
San Juan jaietan. Xepeta Produkzioakaz. Umeentzat. Euskaraz.

2016/06/24 - 20:00

Dantza-plaza, Saltokagaz

Udaletxeko plaza | Barrika
San Juan jaietan.

2016/06/24 - 20:00

Kirolen Gala

Boulevard | Leioa
San Juan jaietan. Leioako Euskal Kirolzaleak elkarteak antolatuta. Harri-jasotzaileak eta aizkolariak egongo dira.

2016/06/25 - 19:00

Disko-festa

Kukularra auzoa | Erandio
San Pedro jaietan. Mugi Zaitetz taldeagaz.

2016/06/25 - 19:00

Dantzaldia, Aiko taldeagaz

Ikea Barri plaza | Leioa
San Juan jaietan.

2016/06/25 - 20:00

Dantzaldia, Sukar taldeagaz

Zubilleta auzoa (Algorta) | Getxo
San Juan jaietan.

2016/06/25 - 21:00

Dantzaldia, Batek Daki-gaz

Udaletxeko plaza | Barrika
San Juan jaietan.

2016/06/25 - 23:00

Horas Muertas eta Kop musika-taldeen kontzertua

Txosnagunea | Leioa
San Juan jaietan. Maritxu Tellagorri Txosna Batzordeak antolatuta.

2016/06/25 - 00:00

Dantzaldia, Gora Herria-gaz

Boulevard | Leioa
San Juan jaietan.

2016/06/26 - 12:00

Orga-jokoaren Txapelketa

Udaletxeko plaza | Barrika
San Juan jaietan. Bizkaia mailako sariketa.

2016/06/26 - 16:30

Olgetan Solas

Kukularra auzoa | Erandio
San Pedro jaietan. Familiarteko kirol-jolasak.

2016/06/26 - 18:00

Txan magoa

Kukularra auzoa | Erandio
San Pedro jaietan.

2016/06/26 - 19:00

GORLIZ

Euskal dantzak eta kantak, nagusi

Bariku honetarako, ekainak 24, Folklore Eguna antolatu dute Aratz Dantza Taldeak eta Musikabi abesbatzak. Hala, gaueko 10:00etatik aurrera, euskal dantzak eta kantak izango dira nagusi, Ibarreta plazan. ◀

GETXO

Skratx antzezlan, Zubilletako jaietan

Eusko Jauriaritzak sustatutako *Kale antzerkia bultzatuz* ekimenaren barruan, zapatu honetan, ekainak 25, *Skratx* antzezlan eskainiko du Amezto taldeak. Emanaldia 13:00etan izango da, Algortako Zubilleta auzoan; sarrera, doan. ◀

SOPELA

Sexu-askapena aldarrikatuko dute

Errailetara buelta. Haustura ala ezer ez! goiburupean, ekainaren 28an, martitze-na, Stonewalleko matxinadaren urterena gogoratuko du Kitzikanek; San Pedro elizatik abiatuko da, 21:30ean, eskualde mailako manifestazioa. ◀

Iraganera egindako bidaia eskainiko du The Flaming Shakers taldeak, Astrabuduan. THE FLAMING SHAKERS



The Beatles taldearen arimaren isla

Liverpooleko Beatleweek jaialdian jotzeko aukeratu zuten iaiz Bartzelonako The Flaming Shakers taldea; musika-adituek diotenez, laukote britainiar entzutetsuari gorazarre egiten diotenen artean onena da banda kataluniarra. Astrabuduan joko dute, Europar Musika Egunean. ◀

Noiz: Ekainak 24, barikua.
Ordua: 22:00
Non: Mendiguren plaza (Astrabudua).
Sarrera: Doan.

2016/06/24 - 22:00

Oxydia eta Wreck Totem musika-taldeen kontzertua

Zubilleta auzoa (Algorta) | Getxo
San Juan jaietan.

2016/06/24 - 23:00

Heissenberg eta Sorkun musika-taldeen kontzertua

Txosnagunea | Leioa
San Juan jaietan. Maritxu Teilagorri Txosna Bartzordeak antolatuta.

2016/06/24 - 23:00

Dantzaldia, Trikiuzogaz

Bulevard | Leioa
San Juan jaietan.

2016/06/24 - 00:00

Su artifizialak

Udaletxea | Leioa
San Juan jaietan. Zaragozana pirotekniagaz.

2016/06/25 - 12:00

Elizaurreko Aureskua

Udaletxea | Leioa
San Juan jaietan. Errekalde nagusien etxeko abesbatzak, Orpheo ganbera-koruak eta San Juan parrokiako abesbatzordeak parte hartuko dute ekitaldian.

2016/06/25 - 12:00

Ikusi Makusi

Ikea Barri plaza | Leioa
San Juan jaietan. Familientzako margo-sariketa.

2016/06/25 - 12:30

Margolari gazteen lehiaketa

Herrian | Barrika
San Juan jaietan. 0 eta 12 urte arteko ume eta nerabeentzat. Informazioa: www.barrika.net

2016/06/25 - 17:30

Euskadiko Sokatira Txapelketa (600 kilokoan)

Udondoko bulebarra | Leioa
San Juan jaietan.

2016/06/25 - 18:00

Umore-ikusbizuna

Kukularra auzoa | Erandio
San Pedro jaietan. Tiriritates taldeagaz.

2016/06/25 - 18:30

Monda Lironda pailazoak

Udaletxeko plaza | Barrika
San Juan jaietan.

Rock-eroak! ikuskizuna

Euskal Etxeen plaza | Leioa
San Juan jaietan. Amezto Produktzioakaz. Umeentzat. Euskaraz.

2016/06/26 - 19:30

Bertso-saioa

Ikea Barri plaza | Leioa
San Juan jaietan. Sustrai Colina, Inazio Vidal, Nerca Ibarzabal eta Jon Maizagaz.

2016/06/26 - 20:00

Asis magoa

Zubilleta auzoa (Algorta) | Getxo
San Juan jaietan.

2016/06/28 - 23:00

The Ladies musika-taldea

Udaletxeko plaza | Sopela
San Pedro jaietan.

2016/06/28 - 23:30

Xaiko eta Euskal Grooves musika-taldeen kontzertua

Txosnagunea | Sopela
San Pedro jaietan.

2016/06/29 - 19:00-23:45

San Pedro Eguna

San Pedro plaza | Gorliz
Euskal dantzak, *zoomb-a*, areto-dantzak, sardina-jana, disko-festa eta zezensuzkoa egongo dira.

2016/06/29 - 19:30

Uribe Kostako lehenengo

Zantzo Txapelketa
Udaletxeko plaza | Sopela
San Pedro jaietan. Meñakoz elkarteko Sopelako Panderojoleak taldeak antolatuta.

2016/06/29 - 20:00

Ana Bejarano eta Urepel

abesbatzaren kontzertua
Udaletxeko plaza | Sopela
San Pedro jaietan. Leioa Big Band taldeagaz.

2016/06/29 - 20:30

Herriko jaiak ikuskizuna

Zipiriñe ikastetxea | Sopela
San Pedro jaietan. Patxin eta Potxin pailazoakaz.

2016/06/29 - 23:00

The Ribbons eta Rat-Zinger musika-taldeen kontzertua

Txosnagunea | Sopela
San Pedro jaietan.

Uribe Kostako jaietako egitarauen atal berezia sortu dugu!

www.hiruka.eus/bereziak/jaiak





Ez da giro

GERMAN
KORTABARRIA IGARTUA

Ikusezinak ikusgai bihurtu dira

Bilboko Arte Ederren Museo zinez ederren izan bazara, gozatuko zenuen haren funtsetako lan apartez edota aldi baterako erakusketa bereziez; ikusi gabe edo haien erreparorik egin gabe joango zitzaizkizun, ziurrenik, harrera eta informazioan, erakusgelen zaintzan, edota guneko dendan begien aurrean izan dituzun gizon-emakumeak.

Oraingoan, ordea, izaki garden horiek -35 lagun guztira- ikusgai bihurtu zaizkigu iragarritako eskultura hiperrealisten lekuan, beren lan-baldintzen erakusketa jarri digutenean musu-musuetan: lanaldi partzialak -kontziliazioarekin bateraezina-, asko jota 880 euroko soldata, eta lan-postuen jarraipenaren inolako bermerik eza.

«Bilboko kulturaren ikurrak» inoiz izan duen lehen grebari konponbidea jarri beharko liokeenak ardura saihesten ari dira: Museoko ugazabek -Aldundia, Udala eta Jaurlaritzak- Manpower azpikontratarena dela auzia; Manpowerrek, berriz, kontzesioaren kondizioek ez diotela langileen eskaerei erantzuteko tarterik uzten. Espero zitekeena, lan-kondizio kaskarrak ezarri eta ardurak saihesteko asmatua baitago azpikontratazio sistema.

Badago grebak mindu duen azal fineko sektore bat, zeinek aldarrikatzen baitu langileen eskaerek -zilegiak izatekotan ere- ez luketela eragotzi behar gainontzekoen kulturaz gozatzeko eskubidea; alegia, hilaren amaierara ito gabe iristea bezalako aspirazio prosaikoek ez luketela trabatu behar espiritu jasoan gozamen estetikoak: gosea aipatzea bajua iruditzen zaie goikoei -Brecht beti harira- eurak bapo eginda daudelako.

Ematen du hasi berria den udan, Arte Ederren Museoan ez, beste nonbait baizik topatu beharko dutela gozamen estetikoak espiritu jaso horiek. ◀



Antolatzaileak, iazko topaketetara gonbidatutako hainbat idazlegaz. © LANBRO BELTZA

Misterioa, nagusi

Lanbro Beltza topaketetan, nobela beltza edukiko dute berbaigai bi egunean, Plentziako Goñi Portal kultur etxean. Ekainaren 24an eta 25ean, mahai-inguru eta eztabaidetan parte hartuko dute genero horretako idazle ezagunek.

Bi urtez jarraian, 1992an eta 1993an, egin ziren genero beltzeko nobela eta filmen inguruko topaketak. Haien berreskuratzea erabaki zuen iaz Plentziako Udalak, Calibre 38 aldizkari digitalaren laguntzagaz. Hala, Lanbro beltza goiburuean, ekainaren 24an eta 25ean, idazleen arteko mahai-inguruak, berbaldiak eta eztabaidak egongo dira Goñi Portal kultur etxean aurrean ere.

Antolatzaileek aurreratu dutenez, besteak beste, Javier Abasolo, Toti

Martinez de Lezea, Aritza Bergara, Javier Sagastiberri, Nieves Abarca, Antonio Altarriba eta Maria Eugenia Salaverri idazleek eta hainbat adituk parte hartuko dute jardunaldietan. Zapatuan, Julian Ibañezi egingo diote «galdeketa zorrotza»; idazle kantabriarra da Lanbro Beltza IV. Topaketen oheretako gonbidatua. David Crestelo alkatearen eskutik jasoko du saria.

Jardunaldien antolatzaileek nabarmendu dutenez, nobela beltzaren *hard boiled* (desanbiguazioa) estiloren adierazle nagusienetako bat da

Egitaraua

Ekainak 24, barikua

18:00 Jardunaldiaren hasiera.

18:30 Mahai-inguruak: nobela beltzeko euskal idazleak.

19:30 Eztabaida: *Serieko hiltzaileen xarma*.

Ekainak 25, zapatua

11:30 Mahai-inguruak: *Garaiko hilketak*.12:30 Eztabaida: *Genero beltzaren irakurleak* (aldizkariak, blogak, irakurleen txokoak...).

13:30 Koktela.

18:00 Juan Ibañezi «galdeketa zorrotza».

19:00 Mahai-inguruak: *Errealismoa eta nobela beltza: kaleko nobela beltza*.

20:00 Sari-banaketa.



1940an Santanderren jaiotako idazlea; «Raymond Chandlerren eskutik jaiotakoak diruditen pertsonaien sortzailea da», aipatu dutenez. Julian Ibañezek 1980an idatzi zuen *La triple dama*, genero beltzeko bere lehenengo eleberria. Adituek diotenez, Andreu Martín eta Juan Madridegatz batera, genero beltzaren idazle berrien belaunaldiaren maisua da. Salamancako zinema eta nobela beltzaren topaketetan, Pata Negra sarietako bat irabazi du aurrean Ibañezek.

Plentziako jardunaldietara bueltatu, zapatu arrastian, Lanbro Beltza ipuin laburren lehiaketaren laugarren edizioaren irabazleen izenak ezagutzera emango dituzte, 20:00etan, Goñi Portalen. Lehendabiziko aldiz, euskarazko idatziak aurkeztu ahal izan dira sariketa horretarako. ◀

Korrontzi dantzan saioa eskainiko dute Sopelan

Iazko azaroan Portugalen jarri zuten abian *Korrontzi dantzan* proiektua. Geroztik hamaika emanaldi egin dituzte; Portugal, Katalunia eta Madrilen lehen saioak egin ostean, Durango, Hazparne, Atarrabia, Amurrio, Tafalla, Mungia, Leitza eta Legazpin ibili dira musikari eta dantzariak, tokian tokiko dantza-taldeak egindako ikastaro eta trebakuntza-saioetan. Eta beste horrenbeste ere badauzkate agenda. Orain arte Euskal Herriko dantza-taldeetako 500 dantzari inguru ibili dira dantzan Korrontzi musika-taldeagaz batera. Besteak beste, Sopelako Meñakoz dantza-taldeak



© KORRONTZI

parte hartu du egitasmoan. Hala, sanpedroak aprobetxatuz, uztailaren 3an, domeka, *Korrontzi dantzan* saioa eskainiko dute Sopelako udaletxe aurreko plazan, 21:00etan. ◀

Japoniako argazkiak jarriko dituzte Begoñako galerietan, Donostia 2016 egitasmoaren barruan

Uztailan zehar *European eyes on Japan* argazki-erakusketa ipiniko dute Algortako Begoñako galerietan. Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburutzaren programazio ofizialaren barruan dago esposizioa; Jon Cazenave donostiarraren eta Łukasz Rusznica poloniarren lanak batzen ditu. Argazkilari biak Kagawa prefeturaren argazkiak egitera gonbidatu zituzten. Bertan hilabetean eman dute egileek eskualdea erretratatzeko, nor bere begiradagaz. Egitasmoa, Getxophoto eta Getxoko Udalaren laguntzagaz aurrera aterako dute. Ekainaren 30ean aurkeztu edo zabalduko dute, 19:30ean. ◀

«Tartanga onera ekartzen lagundu gura dugu dantza-eskolagaz»

Ana Rosa Terceroren dantza-eskolak Altzagako Antonio Trueba kalean emandako sei urteak atzean utziko ditu laster, Tartangako pabiloi batera joateko.

KEPA UGARTE MARTIARENA ►

Erandioko Antonio Trueba kaleko eraikineko ugazabek ez diote beste aukerarik utzi Ana Rosa Tercero Calzada CDART dantza-eskolako nagusiari. Udalagaz gorabeherak eduki dituzten arren, irailetik aurrera Tartanga kaleko 47. zenbakira joango dira eskolako bertoko hamar irakasleak eta 200 ikasle baino gehiago.

Zer arazo eduki duzue dantza-eskolaren egoitzagaz?

Jabeek eraikina saldu gura dute. Hasiarik gaur arte, egoitza gure beharrietara egokitzeko ahalegin handia egin dugun arren, ezin izan dugu eraikina erosteko beste diru batu oraingoan. Hala, kalean geratzeko arriskuan geundela jakin genuenean, beste leku bat bilatzen hasi ginen. Tartangara aldatuko gara; bertan aurkitu dugu gure jardueragaz segitu ahal izateko baldintzak betetzen dituen pabiloia. Lekua ezin da egokiagoa izan; metro-geltoitik abiatuta, arazo barik joan zaitezke trenbidearen aldamenetik, institutuaren atzealdetik igarota, dantza-eskolara heltzeraino.

Agian, minutu gutxi batzuk gehiago beharko dituzte ikasleek bertaraino iristeko... Baina, egoitza berria behar genuen, eta hori aukeratu dugu. Jado-Companion ikastetxea, eta Ategorri eta Tartanga institutuak daude inguruan.

Obretarako baimena ematerako orduan, atzeratu egin da Erandioko Udala, ezta?

Abenduan joan ginen udaletxera beharrezko gestioak egitera; urtarrilaren 5ean, berriz, aparejadoreagaz egin genuen berba. Arkitekto teknikoak esan zigunez, ez zegoen inolako arazorik dantza-eskola Tartanga kaleko 47. zenbakiko pabiloian jartzeko. Gainera, hirugarren sektoreak erabiltzeko sailkatuta ei daude orubeak. Hori ikusita, lanari ekin, eta beharrezko agiriak aurkezten hasi ginen. Baina, derrepentean, arazo teknikoak zeudela



Altzagako Antonio Trueba kaleko 22. zenbakian, sei urte eman ditu CDART dantza-eskola altxatzen Ana Rosa Tercerok.

esaten hasi zitzaizkigun. Egia da pabiloia beste eraikinak baino 20 zentimetro aurrerago dagoela... Suhiltzaileak bertatik igartzeko zailtasunak eduki zitzaizkela esan ziguten. Hala eta guztiz ere, bata bestearen atzetik, eskatu dizkiguten agiri denak aurkezten joan gara.

Hala ere, maiatzera arte ez zeneukan oso argi...

Maiatzean idatzia plazaratu nuen arte, ez nuen erantzunik jaso. Dantza-eskola behin betiko ixteko arriskua zegoela esaten nuen idatzian; orduan ipini zen hartu-emanetan nigaz Egoitz Bilbao Hirigintza zinegotzia, irtenbide bat bilatu behar genuela esanez. Obretarako baimena ekainaren 21ean eman zidaten. Daborduko lanean gabiltza, obrakaz, abuztuaren akaburako dena prest izateko; irailean hasiko da eta ikasturtea. Gainera, San Agustin jaierarako koreografiak entseatu ohi ditugu dantza-eskolan.

Idatziaren bitartez, laguntza eskatzeko oihu egin zenuen.

Etsipen-aldarria izan zen idatzia plazaratzea. Ikasleen aita-amak behin eta berriro etortzen zitzaizkidan, ekainaren akabuan matrikula egin ahal izango zuten galdezka. Ez nekien zer esan; Udalaren erantzunik ez neukan. Horrez gainera, dauzkadan hamar ira-

kasleak ezin nituen kalean utzi ikasturtearen erdialdean; non topatuko zuten lana garai horretan?!

Dirudienez, dena konponduta dago. Antonio Trueba kaletik irten, eta Tartangara joan ahal izango zarete.

Tarte horretan, dena ez da txarra izan, ez. Josean Perez Kirol zinegotziak gela bi eskaini dizkigu kiroldegian, udako

“*Ingurua argiztatzeko, zoladura konpontzeko eta bidegorri bat eskatu dizkiogu Udalari*”

ikastaroak egin ahal izateko. Hainbat urtetan egin ditugu.

Zure ustez, azkarrago erantzun behar zuen Udalak?

Erantzuna azkarragoa izatea espero nuen. Hala ere, suposatzen dut hirigintza-kontuakaz leku guztietan ibiliko direla berdin. Aste Santuan alde egin gura genuen Antonio Truebatik; eraikinaren jabea ikasturtea amaitu arte eskolak ematen uzteko eskatua, eta, horrela izatekotan, bikoitza ordaindu beharko nuela esan zidan. Estutu egin ninduen bertatik ateratzeko; ez didate beste aukerarik utzi.

Beste hainbat kontu eskatu diozue Erandioko Udalari?

Arrizen Monasterio Herri-segurtasun zinegotziagaz batu ginenean, ingurua argiztatzeko eskatu genion; horren argi gutxi egonda, arriskutsua izan daitekeelako. Bestalde, asfaltatu bariarik dagoen zatia konpon dezatela gura dugu; aita-ama asko haur-kotxeagaz etortzen direlako eskolara. Bidegorria ere gura dugu. Azkenik, ondoko orubea garbitu beharko luketela ere uste dugu.

Gaur egun, zenbat lagun zure dago dantza-eskolan?

Ikasleei dagokienez, 200 baino gehiago dauzkagu. Horiei guztiei eurekatz batera etortzen diren aita-amak eta aitita-amamak gehitu behar zaizkie; ikasleetako asko txikitxoak dira. Gainera, nire ustez, egoitza berrian jende gehiago ibiliko da.

Gure iritziz, berebiziko garrantzia dauka Tartanga onera ekartzen joateak eta bertan jarduera ezberdinak egiteko aukera emateak. Orain dela gutxi, Bilboko dekorazio-denda baten pabiloi berria zabaldu du bertan; eta oso polita dago. Auzo hori apurka handitzen joatea litzateke egokiena. Oker ez banago, etxebizitzak egingo dituzte bertoko zabalgunean... Erandio handituz doa apurka; laster, herri-gunean izango dugu eskola. ◀

«Proiektuaren gakoa da filma %100 'made in Getxo' izatea»

Elain Aspra algortarrak pelikula bat grabatuko du Algortan datorren udaberrian. 44 urteko gidolari, ekoizle eta zuzendaria da Aspra (izen artistikoa da), eta azken hamabi urteotan, Novel Films ekoiztetxean lanean jo eta su ibili da, gidoiak idazten eta film laburrak egiten; joan den urtean hasi zen Algortako filmaren gidodia lantzen. Bere lehenengo film luzea izango da.



IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA

Zein da filmatu gura duzuen pelikularen haria?

Bikoteen gaineko istorioa da, gaur egun bikoteek dituzten harremanetan murgiltzeko. Uste dut aldaketa nabarmena gertatu dela; banantze asko dagoela azken boladan, eta kontu soziologikoez gainera, hor zertxobait dago, eta ikertu gura nuen. Horregatik zenbait harreman deskribatzen ditut, baina komeria eta umore moduan, era ausart batean, gaia leuntzen, baina, aldi berean, ekarpena egiten ahaleginduta.

Zein zuzendarik eroango du ideia pantailara?

Zuzendaria Alex Montoya da. Valentziakoa da; jatorri errioxarra dauka, baina, halere, harreman handia dauka Euskadigaz. Askotan egin du lan hemen, Jon Diez Dominguez argazkilaritza-zuzendari algortarragaz. Gogoko du Euskadi. Baina, batez ere, niretzat zuzendari egokiena da film honetarako, egin dituen film laburrengatik, eta filmetan erabiltzen duen tonuagatik. Montoya oso estu segitzen du ekoizle nahikotxok, eta adi-adi daude ea bere lehenengo film luzea zein izango den. Bere film bat Sundance festibalean saritu zuten, eta iaz Goya sarietarako izendatu zuten. Lehenengo pelikula egiteko, proposamen asko jaso du, eta gureagaz bat etorri da: gustatu zaio.

Montoya, Maria Vallejo eta hirurok Algortan izan zineten orain dela aste batzuk, lokalizazio bila. Zein leku izan dituzue gogokoen filmerako?

Algortako alde asko agertuko dira. Istorioa pentsatuta dago ekonomikoa izateko grabatzen dugun bi-

tartean; oso lotuta daude ikusiko ditugun leku-kopurua eta grabazio-egunak zelan baliatuko dugun sistema. Filmean ikusiko dugun lagun-kuadrilla poteoan joango da gau batean, nik neuk edo hemengo gehienok egiten dugun legez, tabernaz taberna Algorta osoan. Gau horretako kontuakaz batera, hainbat *flashback* ere ikusiko dugu, kuadrillako bikote

“**Kontratuak sinatu, eta gidoiak saldu ditut; horiek kobratuko nituzke, filmak eginez gero, baina ez dira egin**”

batzuen harremana kontatzeko. *Flashback* horietan barruko irudiak ikusiko ditugu, etxe batenak, baina gaua pasatzen den bitartean, poteoagaz aterako dugu Algortako ahal ditugun leku denak. Bisualki oso film aberatsa izango da, taberna asko eta giro ezberdin nahikotxo zabaltzeko aukera emango digulako, berdin San Nikolas plazan zein Portu Zaharrean, edo metroaren inguruan.

Portu Zaharrean jaiak grabatu gura zenituen, ezta?

Bai, baliteke. Badago eszena bat, baina ekonomiaren menpe dago. Azkenean gerta daiteke ateratzea ala

ez. Ia film osoa gertatzen da Algortan: %95 inguru. Beste eszena baterako hainbat aukera dugu, tartean Bilbon, hirian, filmatzea edo BBKLive-n grabatzea, baina ikusi behar dugu ea posiblea den.

Zeintzuk izango dira aktoreak?

Filma *indie* gisa izenda daiteke, aurrekontu estua duelako eta tokikoa delako. Ostera, bikoteen gaineko istorioa munduko edozein lekutan uler daiteke. Castingari dagokionez, anbizio handiz jokutzen dugu, istorioaren alderik garrantzitsuena pertsonaiak baitira, batez ere emakumezkoak. Aktore on eta ezagunak erakar ditzakegulakoan gaude. Horretan gaude, eta oraingoz ezin dugu gehiago kontatu: kontaktuak eginda daude; lehenengo erantzunak eta feedbackak jaso ditugu, eta positiboak dira. Zinema-munduan ziurgabetasun handia dago beti, eta ez da erraza ezer irmoki baieztatzea. Baikorrak gara, eta uste dugu aktore-talde ikusgarria izango dela. Filma txikia izango da, aktore ezagun handiek egina.

Algorta eta Uribe Kostako aktoreakaz harremanik izan dituzue?

Oraindino ez, baina hori da ideia. Proiektuaren gakoa, hasieratik irudikatu nuena, izan zen filma erabat hemen egina izatea. %100 *made in Euskadi* baino gehiago: %100 *made in Getxo*. Istorioa Getxon konta daiteke, baina, gainera, hemen profesional handiak ditugu; film bateko sail garrantzitsuenetako teknikariak: artean, argazkilaritza, kamerariak edo maki-



llajea eta ile-apainketan. Hemen bizi diren edo kanpoan dauden getxoztar asko dira zinema-munduko profesional onak. Horretaz jabetuta, erabaki nuen ez bakarrik istorioa Getxon kontatuko genuela, baizik eta talde tekniko osoa getxoztarra izaten ahaleginduko nintzela. Hori da proiektuak duen bertuterik handiena. Castinga eta aktoreak, ostera, oso ikusgarriak dira, eta gehiago begiratu eta zabalagoak izan behar dugu. Koherentea izango da. Dena den, hemengo aktoreak baliatu ahal baditugu, egingo dugu, Algortan oso aktore onak baitaude.

Estrarik ere beharko duzue?

Filmak estra mordoa izango du. Hori ere bada beste ezaugarri bat. Istorio osoan, aktore-taldea Algortatik poteatzen doanez, etengabe poteo-giroa erakutsiko dugu. Tabernetan zein kalean jende pilo izaten da; horrek guztiorrek agertu behar du. Zuzendaria zur eta lur geratu zen orain Getxon dagoen energia eta giroagaz; gustatu zitzaion: «hemen dagoen energia izugarria da; erakutsi behar dugu», zioen. Hortaz, figuranteak edo estrak izango dira, jakina. Ezin izango dugu atera filmatzera inork gu ikusi barik, batez ere aktore ezagunakaz. Betiko «ekin» eta «moztu» entzungo dira, eta estrek jakin beharko dute grabatzen gabiltzala, baina naturaltasuna agertu beharko dute: normalean poteatzen duten moduan agertu.

Berez egongo den giroagaz egingo duzue behar.

Bai, ahaleginduko gara erretratatzeko ikusten dugu-

na, eguen edo bariku arrastian edo gauean pote batzuk hartzera ateratzen garenean. Hortaz, filmean kontratatuta parte har dezakeen getxoztar-kopurua 40 edo 50ekoa izan daiteke. Eta zeharka, 150 baino gehiago ager daitezke.

Baimenak lortzea erraza izaten ari da?

Erraza izango dugu, daborduko Udalagaz egin dugulako berba, eta dena erraztuko digutela esan digute. Haietzat filmazioa proiektu oso erakargarria da, erabat getxoztarra delako, eta ekonomikoki zein turistikoki eragin handia izango duelako. Izatez, filmazio-tasak jada jaitsi egin dira. Uste dut ez dela arazorik izango.

Zenbateko aurrekontua duzue filma egiteko?

Gutxi gorabehera, 600.000 euroan dabil gurea. Pelikula normal bat, aurrekontu txiki edo erdikoa, 1.200.000 euroan ateratzen ohi da. Baina hemen badira filmak bi edo hiru milioi euroko aurrekontuetan mugitzen direnak.

Musikari dagokionez, Getxoko musika-taldeakaz lan egin gura zenukeela adierazi duzu. Baten bat lotu duzue soinu-bandarako?

Oraindino ez dugu berba egin batez ere ez. Baina dugun ideia hori da, eta laster hasiko gara ildo hori jorratzen. Proiektuak daukan izaerari jarraituta, %100 getxoztarra izatea pentsatu dugu: soinu-banda osoa bertoko taldeena izatea, hemengo panora-

ma oso aberatsa dela kontuan hartuta. Gainera, istorioaren protagonistek musika-talde bat daukate. Batez ere, euren bikote-harremanez berba egingo dugu; kuadrillan banda bat dago, eta entseguak dituzte; musika jotzen dute, eta zuzeneko kontzertu batzuk ere ikusiko ditugu. Horretarako talde getxoztar baten musika eta abestiak erabil daitezke.

Algortarra izanda, harrotasun berezirik eragiten dizu filma hemen grabatu ahal izateak?

Bai! kar, kar, kar. Gustatuko litzaidake, badakidala-ko jendearentzat ikusteko eta bizitzeko oso esperientzia polita izan daitekeela. Horregatik, esperientzia hori Algortan gertatu dadin ahalbidetze-lanak egitea gogoko dut.

Urteak daroatzazu gidoilari eta ekoizle. Zein da bizi izan duzun arazorik bitxiena?

Batez ere, gidoilari jardun dut, baina gidoilari izaten, ez dut ogibiderik izan, kar, kar, kar.

Alde garrantzitsua da.

Bai, oso garrantzitsua. Berandu hasi nintzen idazten, ia 30 urteaz. Hasieran arrakasta handia izan nuen bakarriketakaz, *El Club de la Comedia*-n, ETB-arentzat ere idatzi nuen programa baterako, eta gero esan nuen, «tira, zinema», horixe nuen gogoko orduan. Hamabi urte pasa dira, eta ez dut ezer egin.

Hainbat film labur egin duzu.

Ez dut ezer ezagunik egin, elkarriketa batean aipatzeko modukoa. Gehienbat, film laburrak egin ditut. Hamabi urte horietan, ez naiz gelditu, idatzi eta idatzi jardun naiz. Niretzat hamaika kontu gertatu dira: kontratuak sinatu, eta gidoiak saldu ditut; horiek kobratuko nituzke, filmak eginez gero, baina pelikula

“ Filmean lagun-kuadrilla poteoan joango da gau batean, gehienok legez, tabernaz taberna Algorta osoan ”

horiek ez dira egin. Makilakada asko jaso dut. Baina horrela ikasi dut. Kanpora begira, ez da ezer gertatu; ezin dut ezer azaldu esanez: «banabil film honen atzean edo beste pelikula horren atzean». Azken dozena bat urtean ez naiz gelditu, ostera. Pilo bat idatzi dut: gidoiak idazteko modua asko ondu dut; ikusi dut zeintzuk diren geldituta gera daitezkeen proiektuak, eta zeintzuek egin dezaketean aurrera. Oraingoa kasu argia da: sortu dut proiektu bat askoz bideragarriagoa. Azken urteotako eskarmentuaren, jasotako egurraren ondorioa izan da hori. ◀



Lointek, erasora

Nazioarteko probakaz batera, Euskaldun sariketa eta Espainiako Kopa dira aurretik finkatutako helburuak. © LOINTEK

Euskaldun sariketan eta Espainiako Kopan hainbat garaipen lortu ditu daborduko Lointek Sopolako txirrindularitza-taldeak. Saiklapen nagusiak gura dituzte.

Pasa den otsailaren 18an, Emilio Ramos Ugeraga txirrindularitza-klubeko presidentek iragarri zuen Eider Merino txirrindulari balmasedarra protagonista izango zela aurrean. Kurtzion ziren ikusleek ez zuten horretaz zalantzarik izan, aurreko denboraldian Sopolako Udalaren Saria ez ezik hainbat garaipen batu zuelako gazteak. Halere, Ramosen ber-

bak labor lotzeko bidean dira. Ekainaren 11n, Merinok buruan izan zituen Eliteko eta 23 urte azpiko kategoriako Bizkaiko eta Euskadiko txapelak, Sopolako udaletxean, proban seigarren egin arren. Anna Ramirez (Elite) eta Alicia Gonzalez (23 azpikoak) taldekideek jaso zituzten besoak Sopolako Udalaren Sarian. Gazteen kategorian, Bioracer-Elkar Kirolak-eko Mireia

Muñoz nagusitu zen proban eta txapelketetan. Hala, Merino da Euskaldun sariketaren burua, 23 urte azpikoen saiklapenean. Txapelketa hori amaitzeko hiru etapa geratzen dira: Larrabasterako, uztailearen 2an; Tolosakoa, hilaren 16an, eta Zizurkilgoa, hurrengo egunean.

Lointekekoek abantaila izan dezakete Larrabasteran, ondotoxoz ezagutzen baitute 75,1 kilometroko zirkuitua. 16:00etan irtengo dira Larrabasterako biribilgunetik; Urduliz, Plentzia, Gorliz, Andra, Maruri-Jatabe, Mungia eta Gatikatik igaroko dira, besteak

beste. Ostera, Larrabastera bezain garrantzitsua izango da Zizurkilgo proba. Euskaldunaz gainera, Espainiako Kopa ere izango du jokoan Lointek.

Pasa den aste-akabuan, Merino bigarren sartu zen Errioxako Entrenamenduko proban; horri esker, Espainiako Koparen 23 urte azpiko lidergoa berreskuratu, eta bigarren ipini zen Elite kategorian. Gainera, Balmasedakoak mendiko maillotari eutsi dio, eta Belen Lopez taldekidea tarteko helmugan lidera da; Lointek da talderik onena. Kopa abuztuaren 6an amaituko da, Pontevedrako Marin herrian. ◀

Leioako Emakumeak gidatzeko nagusi berria

Datorren denboraldian, Iñaki Sarriak entrenatuko ditu Leioako Emakumeak taldeko jokalariek, Euskal Ligan. Sarria Ekaitz Zarraga teknikariagaz batera etorriko da Sarriena. Biak Mungia klubetik datoz. Sarriak bi urtez trebatu du emakumezkoen lehenengo talde mungiarra; aurretik klub bereko gizonzkoen adarrean jardun zuen. Halere, Uribe Kosta eta Leioa ondo baino hobeto ezagutzen ditu entrenatzaileak, leioaztarra izateaz gainera, Apurtuarten eta Leioan ibilitakoa da-eta. Azaldu duenez, «poz handia» ekarri dio «etxera bueltatzeko». Sarriak aurreko denboraldiko ia joka-



© LEIOA KIROL ELKARTEA

lari denak izango ditu, eta harro agertu da, geratuko diren denek konfiantza agertu diotelako. Entrenatzaileak bere buruari finkatu dion helburua da goiko postuetan egon eta Bigarren Mailara bueltatzeko leku bakarra lortzea. ◀

Athleticek Sarriena jokatzeko du

Athleticek gizonzkoen lehenengo taldeak Sarriena bisitatuko du datorren uztailearen 27an. Leioa Kirol Elkartek jakinarazi duenez, Ernesto Valverdek zuzendutako hamaikakoak datorren denboraldia prestatzeko lagunarteko partida jokatzeko du Gijongo Sporting aurka. Partida 18:30ean hasiko da. Egun berean, denboraldiaren aurretiko zazpi partidei ekingo die Leioa Kirol Taldeak. Uztailearen 27a eta abuztuaren 17a bitartean, urdin-gorriek arerio izango dituzte honako taldeak: Ondarroako Aurrera, Bermeo, Deustu, Baionako Aviron, Vitoria, Irungo Real Union eta Amurrio. ◀

Lau uribekostar atera dira Bilbao Athleticetik

Athleticek baieztatu duenez, Uribe Kostako lau futbolari ez dute segituko Bilbao Athleticen. Zerrenda horretan daude Jon Ander Felipe Gonzalez atezain getxoiztarra, Jonas Ramalho Chimeno atzelari lamiakoa, Iker Guarrotxena Vallejo erdilaria eta Amorebieta klubari laga zioten Jon Ander Amelibia Arenaseko atzelari ohia. Era berean, Bilbao Athleticen Yannik Rahmani Cordeiro erdilaria berreskuratu du Leioa Kirol Elkartetik. Jokalari frantsesak lau gol sartu ditu Sarriena jokatzeko, haietako bi kategoriari eusteko promozioan, Xativako Olimpik taldearen aurka. ◀



Maddi Aalla Plentzian jaio, eta Gorlizen bizi da; Urduliz eskubaloi-taldean hazi zen, eta orain, Barakaldoko Zuazon jokatzeko du.

«Nire Mundial bakarra, azkena, izan daiteke»

Maddi Aalla Rotaetxe 19 urteko eskubaloi-atezain gorliztarrak Munduko Txapelketa jokatu du uztail hasieran, Errusian. Urdulizko klubean hazi, eta Zuazo taldean dabil orain.

INIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ►

Zuazok fitxa berritu zizun pasa den astean. Pozik zaude?

Oso pozik! Taldea Ohorezko Mailan dago; urtez urte mailaz maila igo gara. Asko ikasten nabil bertan; gainera, ondoan Mertxe Castellanos daukat: eskarmentu handiko atezain aparta. Mertxek asko irakatsi dit. Liga horretan egotea eta lehenengo postuengatik borrokatzea esperientzia izugarria da.

Ligan 6., eta Kopan txapelkunordeak.

Oso ondo hasi ginen Ligan, izan dugu hobeto sailkatzeko aukera, baina azkenean nabaritu izan dugu denboraldi-amaiaren nekea. Kopako esperientzia, ostera, ahaztezina izan zen. Denok disfrutatu genuen, izugarri. Bai batean, bai bestean, oso pozik geratu naiz.

Lehenengo aldiz izan zara denboraldi osoan Ohorezko Mailan.

Bai, pasa den urtean, gazte-kategorian nabil, Ohorezkoakaz entrenatzera

igo nintzen, eta partidaren bat ere jokatu nuen. Baina, ofizialki, hau izan da nire lehenengo denboraldia.

Zelan moldatu zara?

Gazteak baino askoz gogorragoa eta zorrotzagoa izan da; entrenamenduak luzeagoak dira, biziagoak, eta gehiagotan entrenatzen dugu. Partidetan ezin zara lasaitu, taulako azken taldeak ere ezustekoa eman dezakeelako. Hala ere, beti erne egon beharra duzu. Erregularitasunez jokatu behar duzu.

Zelan dator hurrengo denboraldia?

Ni gogo handiz harrapatuko nau. Gainera, talde indartsua daukagu, eta egin ditugun fitxaketa berriak liga polita egin dezakegulakoan nago, aurtengoa baino hobea. Hurrengo denboraldian asko disfrutatu ahal izango dugu.

« Euskal Selektzio nagusiari ez zaio garrantzi handirik ematen »

Espainiako gazte-selektzioak baieztatu dizu Mundialera zoazela.

Bai. Nire mundial bakarra eta azkenengoa izan daiteke, eta taldekide denek legez, gogo handia dut jokatzeko eta zeregin ona egiteko. Izan ere, iazko Europako txapelketan, arantzaren bat

gelditu zitzaigun. Ahal badugu, zelaira atera eta iazko zortzigarren postua hobetzea nahiko genuke.

Argentina, Egipto, Alemania, Errumania eta Kazakhstan dituzue taldean.

Lehenengo helburua talde-faseari aurreragea da; uste dut ondo jokatzeko lor dezakegula, arerio horietako batzuk gogorrak izan arren, beste batzuk ez direlako horrenbestekoak. Gero, borrokatzen segituko dugu.

Euskal Selektzioan ere ibili zara. Horrek nahiko partida jokatzeko du?

Ez. Beheko kategorietan nabilenean, neguan batzen ginen; oportretan, txapelketa geneukan, eta prestatzen ginen; askoz dinamikoagoa zen. Selektzio nagusiari ez zaio ematen garrantzi handirik. Jokalari batzuk Ohorezko Mailan egotea ere arazoa izan daiteke, zailagoa baita denak batzea. Halere, protagonismo gehiago eman beharko liokete.

Erakundeek gehiago konprometitu beharko lukete?

Bai, duda barik.

Eskubaloi bera sustatzen da?

Ez, oso gutxi. Kirol bi dira protagonistak: saskibaloia, eta, batez ere, futbola. Eskubaloiari ez zaio inolako garrantzirik ematen, eta emakumeenari, askoz gutxiago. Apurka-apurka indarra hartzen dabil, maila hobetzeagaz batera. ◀



Kirolaz beste

IÑAKI ETZEGIA MARDARAS
Kirolaria

Kirola baino generoa dugu gustuko

Azken asteotan egon den polemikaz hitz egingo dut honetan, polemika Athleticek liga irabazi duelako. Eta bai, nesken taldea ere Athletic da. Baina zer gertatuko litzateke «titular» hori egunkarrietan irakurriko bagenu? Segur aski jendeak errakuntza bat dela pentsatuko luke, edo hori neskena dela erantzun, lortu dutenari bere balioa kenduz. Noski, nesken futbola beste kirol bat da. Beraz, kirola baino generoa da gustuko duguna, gola sartu ostean kamiseta kendu eta oihera egiten duten kirol horiek, errespetuz betetako kirolak, kiroltasuna eta berdintasuna eskatzen duten kirolak.

Eta hori maila gorenean aurkitzen diren kirolekin gertatzen da batez ere. Badirudi emakumeak beste zerbait eman beharko lioketea gizarteari, edo hori sinetsarazi nahi digute. Baina gizonen kirolekin berdinean arituta liga irabazi ondoren polemika heldu zaie lehenik, eta ospakizunak ondoren. Orduan bai ikusi genuela jendetza, animatzen eta laguntza eskaintzen, baina zer nahiago dugu? Erantzuna ez da generoari buruzkoa, kirolari buruzkoa baizik: nik futbola nahiago dut, ala ez. Sarritan zaila egiten zaigu hau bereiztea, hau da, kirola bera gustuko dugun jakitea edota kirolak dakarren ikuskizuna gustuko dugula onartzea eta tamalez emakumeen kirola eman digute ikuskizuna beharrean.

Nik pertsonalki ez dut futbola asko jarraitzen, kirola bera gustuko dut eta are gehiago praktikatzea. Baina berdin praktikatzen dela esango nuke gizon zein emakumeekin, arauak berdinak direla esango nuke, arbitroa egongo da, eta ate bi, baloi biribil batekin, eta golak, golak berdin balioko du emakume batek edo gizon batek sartuta. Hala ere, baten lorpenak ez du baliorik bestearekin alderatuz, nahiz eta «liga» liga deitu bietan. ◀



Galtza motzetan

JON
ELORTZA MUJIKA
Kazetaria

Etorkizunerako ametsa, eta nahia

Azken asteotan Eurokopa jokatzeko ari da Frantzia, egun selekzioen mailan futbolaren munduak eskain dezakeen txapelketa garrantzitsuenetako bat.

Onartu behar dut mingarria egiten zaidala GUREA bertan ez ikustea. Maila badugu eta gogoia ere bai. Beste batzuen borondatea falta zaigu soilik. Baina denborak eta lanak sendatuko duten gaixotasuna izan daitekeelakoan nago, ez dut itxaropena galtzen. Amets hori egia bihurtuko da noizbait.

Egunen batean txapelketa ofizial batean ikusiko dugu gure selekzioa, ziur nago!

Eta hori gertatzen den unean (bertan izatea espero dut) euskal zaleok, egunotan ikusten ari garen irudi lotsagarri bezain larrietan ez azaltzea desiratzen dut... Ez nuke, gu tarteko, egun hauek ikusitakoak ikusita, sentitu dudana lotsa eta atsekabea berriro sentitu behar izatea.

Futbol festa zoragarria behar lukeenak guda gordina dirudi hainbatetan. Hautsi, apurtu, parean jarritakoa suntsitu... Sua, odola, mina... Horren zaila ote da, norberarena goraiatzeko eta gozatzeko, aurkariari errespetua galdu gabe?

Ulergaitza egiten zait milaka kilometro egitea beste zale batzuei eurak baino astoagoa zarelako erakusteko soilik. «Animalia» behar du!

Alkohola, muturreko pentsamoldeak, barneko deabruak... Arrazoi asko egon daitezke, baina bat bera ere ez arrazoizkoa.

Futbola pasioa da, hori ezin da ukatu. Eta, neurri handi batean, horretan oinarritzen da bere arrakasta. Baina, batzuetan zoritxarrez, pasiotik kirtenkeriara horren pauso txikia dagoela dirudi...

Hori horrela, ikus eta ikas dezagun guri tokatzen zaigunerako, laster izan daiteke-eta... Hala bedi! ◀

Salvadorren azkena

Datorren uztailaren 10ean, amaierara helduko da Elkartasun-maratoiak egitasmoa. Orain dela sei urte, Javi Conde atleta basauriarrak martxan ipini zuen ekimen hori, eta Jon Salvador korrikalari erandioztarrak lagundu dio harrezkero. Olinpiar eta Paralinpiar Jokoak hartu dituzten 27 hiriak bisitatu dituzte proiektuagaz, 2009tik hona, horietan maratoiak egin eta ongintzako erakundeei dirua emateko. Baina ekimena diseinatu zutenean ofizialak ziren egoitzak baino ez zituzten kontuan hartu. Horregatik, berezia izango da uztailaren 10ean Salvadorrek eta Condek antolatuko duten azken lasterketa: Stoke Mandeville

herrian beteko dituzte 42,195 kilometroak. Ingalaterrako Buckinghamshire konderriko udalari horretan egin zizuten lehenengoz Gurrpil-aulki gaineko eta Anputatuen Munduko Jokoak, 1948an. Gerora, 1960an Erroman abiatu zituzten Paralinpiar Jokoetako inspirazio izan ziren Stoke Mandevilleko joko haiek. Salvadorrek eta Condek 105 bira emango dizkiote herriko estadioari; senideak, lagunak, kolaboratzaileak eta hango kirolariak ondoan izango dituzte.

Sei urteotan, Javi Condek eta Jon Salvadorrek 165.000 euro batu dituzte elkartasun-probetan, eta diru hori banatu egin dute irabazteko asmo bako 95 elkarteren artean. ◀



Salvadorren ibilbidea babestu du Erandiok.

Goiherri, bigarren txapelaren bila aurten

Goiherri Erandioko sokatira-klubaren A taldeak irabazi zuen Lur Gaineko Euskadiko Sokatira Txapelketa pasa den zapatuan Barrikan, 640 kiloko modalitatean. Finalean, erandioztarrak nagusitu ziren, eta Martiartuko saioan lortu zuten abantaila berretsi zuten. Horrela, txapela janztea lortu zuten. Bigarrena beste faboritua izan zen: Laukizko Gaztedi A taldea. Hirugarren postuan Goiherri B taldea geratu zen. Atzetik, Gaztedi B, Mutriku, Goiherri-Akelarre eta Gaztedi C sailkatu ziren.

Hala, berdeak bigarren txapelaren bila hasiko dira, datorren zapatuan,



© GOIHERRI

Leioan; bertan 600 kiloko txapelketa abiatuko da. Uztailaren 3an, bigarren saioa egingo dute Loiu; azkenik, finala Goierrin jokatu dute, uztailaren 10ean, San Kristobalen jaietako egitarauaren barruan. ◀

Jon Rahm, golf-jokalari amateur onena AEBetan

Pasa den astelehenetik profesionala da Jon Rahm golf-jokalari barrikoztarrak. Kategoria horretan estreinatuko da egun honetan, Quicken Loans National sariketan. Horren aurretik, denboraldi aparta burutu du amateur gisa: bigarrenez Ben Hogan saria jaso, Jack Nicklaus garaikurra eskuratu, eta AEBetako sariketa irekian (U. S. Open) domina ere irabazi du, 23. sailkatuta. Bera izan da Oakmont-en (Pennsylvania) jokatu duen golfari amateur bakarra. Rahmek azaldu duenez, «beti izan dut konfiantza neure buruan. Kontuak lortu ahal izateko, lehenengo amestu behar dira, eta horrela egin dut». ◀



Euskadiko Hondartza-boleibol Txapelketa irabazi dute Maider Santxo Soto eta Katalin Garcia Lopategi Getxoko Aixerrota boleibol-taldeko kideek, 17 urte azpiko kategorian. Finala hilaren 12an jokatu zuten Sestaon, bertako bikote baten aurka. © JOSEBA SANTXO

AEAREN aurkako igerialdiak 3.400 euro batu ditu

Pasa den ekainaren 12an, Algortako Kirol Portuak hartu zuen elkartasun-igerialdia arrakastatsua izan zen. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, 3.405 euro batu zituzten ekimenaren bidez. Diru dena eman diote Siempre Adelante elkarteari; AEA Alboko Esklerosi Amiotrofikoa gaitzak kalte-tutako gaixoen alde dihardu Siempre Adelantek; gaitza ikertu, gaixoen bizi-baldintzak hobetu, eta arazoa ikusgarri egiten. Igerialdian, Virginia Berasategi, Jaime Caballero, Lucas Cortabitarte, Ruben Fernandez, Agurtzane Domingo eta German Zubiaur nagusitu ziren, nor bere kategorian. ◀

Sudokua

			2				8	6
				9	4			7
	2	8		5				
6		7					4	
					7			8
	8					3		
				4		7	6	
9					5			
4	3	5						2

Gogoan har egizu 1etik 9ra arteko zenbaki denek agertu behar dutela zutabe, ilara eta azpilauki bakoitzean.

Soluzioa

2	1	6	9	8	7	5	3	4
4	3	8	5	2	1	9	7	6
5	9	7	6	4	3	2	1	8
6	7	3	2	9	5	4	8	1
8	5	9	7	1	4	3	6	2
1	4	2	8	3	6	7	5	9
3	6	4	1	5	9	8	2	7
7	2	5	4	6	8	1	9	3
9	8	1	3	7	2	6	4	5

Horoskopoa



Ura (Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Gorputza zaintzeko garaia heldu zaizu; kanpotik itxura ederra daukazu, baina barrukoak ez daude hain itxuroso. Kontuz gaixotasunakaz!



Otsoa (Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Ganoragabekeriatik epeltasunera doan ibilbidean katramilatuta zabilta azken boladan. Bazu unea zure balioak defendatzeko.



Adarra (Otsailak 19-Martxoak 20)

Orain artekoaren balantzea positiboa da; hobe duzu horrela segitzea. Etokizunean kontuak okertuko balira, norabidea aldatu, eta kitto!



Aitzurra (Martxoak 21-Apirilak 19)

Errealitateagaz bat ez datozen istorioak kontatu dizkiezu ingurukoei, eta eurek, sinetsi; kontuz, azkenean, zeuk ere sinistuko dituzu-eta.



Hostoa (Apirilak 20-Maiatzak 19)

Munduko pertsonarik jakintsuena ere teloen parea gera daiteke noiz edo noiz. Ez larritu behin barregarri geratu izanagatik.



Eguzkia (Maiatzak 20-Ekainak 18)

Jar zaitetz besteen lekuan, ahalegina egizu besteen arrazoiak ulertzen, eta noizean behin zeure haserrealdiak gorde.



Garia (Ekainak 19-Uztailak 18)

Goizaldeko ordu txikietan oraindino pantailari begira? Amatatu gailua, itxi begiak, eta lo egin ganoraz, behingoz!



Lastoa (Uztailak 19-Abuztuak 17)

Aurreko asteotan, ez zinen ondo ibili; orain, ordea, erabat pletoriko zaude. Tentuz ibili, bizitzak gorabehera handiak dakartza-eta.



Iratzea (Abuztuak 18-Irailak 16)

Ez zaitetz hain materialista izan. Jarrera horri eutsiz gero, gero eta lagun gutxiago izango duzu. Osasunez, ederto egongo zara.



Meta (Irailak 17-Urriak 16)

Etxean sartu duzun gauza-multzo ikaragarri hori ala zu zeu! Daborduko ez dago biontzako lekurik. Zirt edo zart hartu behar duzu erabakia.



Hazia (Urriak 17-Azaroak 15)

Gero eta gertuago daukazu zure oreka pertsonala: laster emozioak eta arrazoinamenduak kontrolpean izango dituzu. Gertaerak, oster, ez.



Negua (Azaroak 16-Abenduak 20)

Zure inguruan gertatzen dabiltzan istilu eta ikamika denei probetxua atera diezaikezu. Aztertu ondo aukera denak.

Zorion agurrak



Bidali zeurea!
publi@hiruka.eus
94 491 13 37

5€



ESTI
ALGORTA
Liharren partez

Gaur izeko zoragarrienaren urteak dira, ZORIONAK, IZEKO ESTI! San Juan sura eramango nauzu? Primeran pasatzen dut zurekin! Amatu eta aitatzuren partez musu asko! Maite zaitugu!



ZIORTZA
ALGORTA
Martikoenatarron partez

Zorionak, Zior!! Primeran pasa zure egunean, eta nahiz eta eguaztena izan, zurito batzuetara gonbidatuko gaituzu ezta? Dirutxoak prestatzen hasi! Bizipoza eta musu potolo asko!



ANDER
BILBO
Bizilagunaren partez

Zorionak, Petardooo!! Egun ederra ospatuko dugu elkarregaz, egitaraua prest daukat jadanik! Momentuz pista bat baino ez... soinuak gidatuko zaitu! emaiou buruari!! Musuuu



AMAIA
BARRIKA
Etxekoen partez

Zorionak, Monkaaa!! Urte berria hasten duzu, eta gero ederrago zaude, amaxuu! Oraingoan, nora gonbidatuko gaituzu bazkaltzera? Mila kilo zorion, bihotz-bihotzetik!

Zu eta biok, hirukan, bultzada bera!



Gure lana, Zure ekarpenak,
Denon babesa eta parte-hartzea,
Bultzada ekonomikoa ere bai!


Urtean
35€
baino ez

hiruka.eus/harpidetza/laguna/
944 911 337
hirukakoop@hiruka.eus

hiruka zaitetz!



Trukean: zozketak, sariak, astekarla eguaztenero...



Atxurra koba

Labar-artearen erakusleihorik handiena

Euskal Herrian historiaurreko margo gehien dituen aztarnategia aurkitu du Berriatuan Diego Garate arkeologo plentziarrak zuzentzen duen ikertzailetaldeak. 2014an hasi, eta joan den maiatzean aurkeztu zituzten emaitzak.

IKER RINCON MORENO

Gizakiak betidanik gura izan du inguratzen duen guztia erreproduzitu eta gorde, aurretik ikusitakoaz berriro gozatu ahal izateko geroan. Teknologia erraztasunak eman dizkigu irudi estatikoak gordetzeko, argazkigintzari esker, berbarako. Ondoren, bideokamerek mugimendua gordetzeko aukera ere eskaini ziguten. Hala ere, eguneroko elementuen irudikatzea ez da berria, ezta mugimendua erreproduzitzearena ere, inondik inora. Historiaurreko pertsonak ere horretarako ikuspegia zuten; Altamirako (Kantabria) kobazuloetan gordetzen den arte kuarternarioan ikus daitekeenez, kabernikolek basurde polikromo bat irudikatu zuten bertako saibaietan: zortzi hanka ditu basurdeak. Arkeologo askoren arabera, margo horrek, ingurukoek ez bezala, animalia irudikatzeaz gainera, mugimenduaren sentazioa eragin gura zuen, hanken mugimendu jarraitua azaltzeko. Milaka urteren ostean, oinarri horretaz baliatuta, hainbat margolarik animalien hankak biderkatzeko ohitura hartu zuten, mugimendua irudikatzeko; Carlo Carraren 1912ko *Zaldia eta zalduna* lana, berbarako. Baina itzul gaitezen historiaurrera eta paleolitikoko artera.

Orain dela 40.000 urte inguru kobazuloetan margotutako irudiek osatzen dute labar-artearen. Margo horiek izaera espirituala izan ohi zuten, ehiza areago-

Urte biko lanaren ostean, 70 animalia-erreprodukzio aurkitu dituzte. Santimamiñen, 40 margo inguru aurkitu ziren

tu guran, eta mundu osoko bazter gehienetan aurki daitezke. Ostera, zaharrenak eta garrantzi handiena dituztenak Iberiar penintsulan eta Frantzia topa daitezke, adituen arabera. Horiek Paleolitikotik Neolitikora arteko garaioak dira, eta zaharrenak Altamirako kobazuloan agertu dira, Kantabrian. Euskal Herrian, berriz, Diego Garate arkeologo plentziarrak azaldu duenez, «betidanik egon da hutsune bat, labar-arteari dagokiona». Izan ere, Kantauri aldean eta Pirinioetan, kobazulo asko daude, eta «ezinezkoa» zuten ikertzaileek azaltzea zergatik ez ziren historiaurreko margo horiek aurkitzen gurean. Orain dela hamar urtetik hona, baina, «hutsune» hori betetzen hasi dira, Askondo (Mañaria, Bizkaia), Aizbitarte (Errenteria, Gipuzkoa) edo Lumentxa (Lekeitio, Bizkaia) kobazuloak. Joan den hilabetean, maiatzean, gainera, Garatek zuzendutako ikerlari-taldeak arte-labarren beste aztarnategi bat aurkitu zuen Berriatuko Atxurra kobazuloan. «Garrantzi handiko aztar-

nategia da, santutegi handia», esan du arkeologoak. Orain dela urte bi hasi zituzten indusketa-lanak, haitzuloaren sarrerako aztarnategian, «baina margoak iaz aurkitu genituen Iñaki Intxaurbe espeleologoak eta biok, irailean, indusketa-kanpaina barruan programatutako prospekzioan», azaldu du. Lan horri esker, adituek 70 animalien erreprodukzioak aurkitu dituzte bertako hormetan, «gehienak grabatuak dira, baina ikatzez egindakoak ere badaude».

Historiaurreko «santutegia»

Aztarnategia, Joxemiel Barandiaranek aurkitu zuen 1929an, eta berak hasi zituen bertako indusketa-lanak 1934 eta 1935 artean. Garai hartan, induskatzeko metodologia ez zegoen lar garatuta, eta aurrerantzean, Atxurra jorratu barik geratu zela azaldu du Garatek. Hori dela-eta, haren ekarpen-aukerak neurtu guran, bertara joatea erabaki zuten ikertzaileek. Momentuz dozena erdi bider baino ez dira sartu Atxurra kobazuloa lan egiten, eta azaldu dutenez, «bertako azala baino ez dugu ikusi». Ez da batere erraza haraino heletzea, orain arte identifikatu dituzten paleolitiko aroko horma-artearen ebidentzietaraino, erlaitzetara bidea oso zaila delako: 300 metrora baino sakonago daude; horren ondorioz, azterketa-lanak oso neketsuak dira, derrigorrezkoa delako aldamiok eta segurtasun-sistemak ipintzea. Azalekoa bakarrik aztertu badute ere, aurkitutakoa «izugarria» dela aitortu du arkeologo plentziarrak: «animalia aldetik, Euskal Herrian kopuru handienekoa izango da, seguru asko. Egin kontu: Santimamiñen (Kortezubi) 40 margo aurkitu ziren –egunotan bere aurkikuntzen mendeurrena ospatzen dabilta–; Atxurran, gutxienez, kopurua bikoiztuko da. Katalogoa askoz handiagoa da, eta garaiko



© BFA/DIEGO GARATE

estiloak eta elkartrukeak aztertzeke oso baliagarria da». Berriatuko kobazuloan aurkitutako margolan gehienak garai berekoak dira, Ertain Madeleine aldiak, hau da, orain dela 14.000 urtekoak. Azarnategian, baina, garai ezberdinetako aztarnak aurkitu dituztela nabarmendu du arkeologoak: «orain dela 30.000 urtekoak, Gravette aldekoak; Solutre aldiak ere bai, duela 20.000 urtekoak, eta, batez ere, Madeleineko Goi, Behe eta Ertain aldiak aurkitu ditugu. Margolanak azken aldi horretakoak dira».

Oraindino, haitzuloaren atal batzuk berrikusi eta aztertu barik egon arren, zehaztu dutenez, animalien irudiak dira gehienbat, zaldienak eta bisonteenak bereziki, nahiz eta ahuntzak, oreinak eta uroak ere egon badauden. Grabatuaren teknika erabili zuten ia beti, aldaera desberdinak; «batzuk oso zehatzak dira, baina badaude beste batzuk eskematikoagoak direnak. Dena den, estilo berekoak dira denak». Halaber, batzuetan, margo beltza be badaukate, baina ez da ondo kontserbatu. Horrez gainera, arkeologoak adierazi duenez, «beste hainbat altxorren artean, Europa mailan lantaz eginiko marka gehien dituen bisontea gordetzen du Atxurra kobak».

Euskal Herria leku geostrategikoa izan da beti: «gaur egun, A8 autobidea daukagu penintsula eta europar kontinentea lotzeko. Garai hartan (historiaurrean), Pirinioak elurpean zeuden, eta mendiak zeharkatzea oso zaila zen. Kostaldetik zeharbide bakarra zegoen, eta gu hortxe gaude», akordura ekarri du Garatek. Horren ondorioa da inguruan garrantzi handiko aztarnategiak aurkitu izana.

Labar-artearen bila

Besteak beste, Behe Nafarroako Isturitze leizean gi-

zakiak etengabe bizi izan zirela dio arkeologoak, «neanderthalak hasieran eta gero gu». Hori dela-eta, sukarrizko tresna asko aurkitu dira bertan: «megalo-poli bat zen». Inguru hartan ere, hainbat aztarnategi aurkitu izan dituzte: «Isturitzeko sateliteak ziren batzuk». Hala ere, topatutako guztiaren artean, artea falta zen; «horrexegatik hasi ginen bilatzen: ez zeukan zentzurik arterik ez egotea».

Europa mailan lantaz egindako marka gehien dituen bisontea gordetzen du Berriatuko Atxurra kobazuloak

Euskal Herriko labar-artea aurkitzeari ekin zioten arkeologoek, eta egindako lanari esker, azken hamar urtean, hirukoiztu da gurean kobazuloetako aztarnategi-kopurua; «imajinatu guretzat zer-nolako une zirraragarria den», aitortzen du Garatek. Hala, gaur egun, aurkitu berri dituzten margoez gainera, Bizkaian Santimamiñen aurki daitezke labar-artearen aztarnak. Gipuzkoan, berriz, Ekain eta Altxerri kobetan ikus daitezke. Azkenik, Ipar Euskal Herrian, Erberua nabarmendu du arkeologoak: «beste guztiak, 20 bat, askoz txikiagoak dira; horrexegatik da hain interesgarria Atxurra».

Aurkikuntzaren berri ematea

Joan den maiatzaren 24an aurkeztu zuen jendarean Diego Garatek Atxurra kobazuloan aurkitutako dena, Bizkaiko Foru Aldundiko Elena Unzueta

Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko eta Lorea Bilbao Euskara eta Kultura sailburuakaz batera. Bilbaok azpimarratu zuenez, «pintura horiek aurkitzea klabea, erabakigarria da paleolitikoko artea ezagutzeko, Atxurraren barruan panel eta figura dekoratu ugari topatu delako eta material arkeologikoa gordetzen duten ukitu gabeko zenbait eremu ere badaudelako bertan».

Horrenbestez, Bizkaiko Foru Aldundiko agintariek erabaki dute koba jendearentzat ez zabaltzea, adituen gomendioak bete gura dituztelako, eta ondare arkeologikoa kontserbatzeko Aldundiak duen konpromisoari ere eutsi gura diote. Izan ere, aurkikuntzak balio «oso handia» du, eta hori dela-eta, «delikatua da duen kontserbazio-egoera». Gainera, bertaraino heltzea arriskutsua denez, eta pertsonen integritatea jagon gura dute. Hala ere, iragarri dute, aurkitutakoaren nondik norakoak ikusi ahal izateko 3Dn digitalizatzeko lanak egiten dabil Aldundia, «interesdunen artean, ahalik eta zabalkuntza gehien izan dezan».

Berriatuko Udalak poza agertu du herrian egin duten aurkikuntza handiagatik. Ostera, harrituta ere badagoela adierazi du, Udalak ez baitu «inola informaziorik» jaso Aldunditik: «kobazuloa gure udalerrian dagoen arren, prentsaren bidez jaso dugu informazioa». Horren harira, Diego Garatek azaldu du alkateagaz eta Udalagaz harremanetan daudela daborduko, «guretzat herriagaz lan egitea ezinbestekoa da, eta horrela egin dugu askotan: Lemoan, Mañarian, Lekeition zein Barrikan». Izan ere, Plentziako arkeologoak zehaztu duenez, ondarea herriarena da, «guk ikertu besterik ez dugu egiten, aurkitutakoa errazago zabaltzeko jendarteari berari». ◀

Urduliz, 1998

Lehen/Orain



© GARIKOITZ ESTORNES ZUBIZARRETA



Uribitakora

TESTUA

Galder Bilbao Txapi

DOINUA

*Lide dabil korroska,
ta Hodei errena*

ARGAZKIA

Hodei Torres

Marea gorria behera, marea urdina gora

Elementu arrunt batek
deitu digu ardura,
aukera asko datoz
segidan burura.
Nahi ta nahiezkoa du
suarekin guda,
udan egoten gara
beragaz gustura;
barruak ta kanpoak
freskatzeko ura!!

Telebista piztu ta
begietan miña;
baloi gorriak dakar
herrien eziña.
Itsaso, zero, ibai,
ta erreka fiña,
borboi ez den printzea
baita ere jakiña;
edertasunak dauka
kolore urdiña.

Plasma handi ta ederra
aurrean duguna,
hauteskundetan botaz
saltzaileak jarduna.
Baina orain eragiten
du lasaitasuna,
izurde ta uhina
da gure laguna;
zuek murgildu ere
bestela isuna!!



Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidal egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, ALBEko kideek jarritako bertso eta guzti: hiruka@hiruka.eus

Erakunde laguntzaileak:



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua